ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko urtarrilaren 19a > Astelehena > VII. urtea > 217. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Janaria bidaltzea baino premiazkoagoa da Espainiako Gobernua presionatzea"
**Garazi Hach**
Saharar euskalduna > 08

**ASTEKO GAIA**
**Konponketak: krisiari aurre egiteko alternatiba bat** > 03

**ARETXABALETA**
**Materia organikoa edukiontzietan jasotzeko bigarren fasea** > 11

**MENDIA**
**Txomin Uriarte, Euskal Mendi Federazioko presidente berria** > 21

**SASKIBALOIA**
**MUk denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen zapatuan**> 25

**EKONOMIA** > KOOPERATIBISMOA

## Eroski munduko kooperatibarik handiena, 52.000 bazkiderekin

**FILIALAK** Enpresaren baitan dauden sozietate anonimoak, enpresa filialak, kooperatiba bihurtuko dira aurrerantzean

**APURKA** Onartutako plana modu mailakatuan egin gura dute eta urte batzuen buruan bukatuko da prozesu guztia

**KOOPERATIBISTA** Gaur egun Eroskik soldatapean dituen 48.000 langileak bazkide izango dira > 06

**MERKATARITZA** > GOIENA

## Interneteko denda birtuala

Goiena kooperatibak 'Merkatua.net' Interneteko denda birtuala aurkeztuko du martitzenean > 05

## G2a

### The Wet Band Mutrikuko taldeak irabazi du Danbaka lehiaketa

Egubakoitzean final lehiatua izan zen Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Azkenean, The Wet Band taldea izan zen epaimahaiak aukeratutako taldea eta baita ikusleek gehien bozkatu zutena ere. Hortaz, bi sari eraman zituzten Mutrikura.

Adi Holden Bergarako taldea Debagoieneko onena izendatu zuten. Hala, The Wet Band eta Adi Holdenek, biek, disko bana izango dute.

Norman taldea garaipenaren ateetan gelditu zen eta esku hutsik joan zen. >




**BI ALDIZ IRABAZLE** The Wet Band taldea izan da Danbakako onena, epaimahaiaren eta ikusleen iritziz. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 03
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**FUTBOLA** > PREFERENTE MAILA

## Aloña bigarren postuan Idiazabalen irabazi eta gero

Aloña Mendik eta UDAk mendean hartu zituzten aste bukaeran Idiazabal eta Berio, hurrenez hurren. Oñatiarrak preferente ligako bigarren tokian dira orain, Hondarribia liderrarengandik bi puntura. Aretxabaletarrek hirugarren postua eskuratu zuten atzoko garaipenaren ostean.

Mondrari dagokionez, arrasatearrek husna berdindu zuten Mundarrorekin zapatuan. Andoni Azkargortaren mutilak 12. tokian dira. Datorren astean partidu zaila izango dute Mojategin, Tolosa etorriko daeta bisitan. Aloñak Mundarro hartuko du eta UDAk Pasaian jokatuko du. > 22

**EZBEHARRA** > ISTRIPUA

## Arrasateko gazte bat hil da istripuan

Errioxan, Alesancon, izan zuen istripua 17 urteko gazteak domekan > 04



**Umeentzako liburuak opari. Nahi?**
Zoaz 7. orrialdera




**Laster GIDA 2009 zure etxean!**

Gida osatuena erabilgarriena eta berriena.

**Zure herriko denda eta enpresen telefonoen gida.**

**Eta aurten gida komertziala baita Goiena.net atarian ere!**
**http://goiena.net/gida**

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**EKONOMIA** > HAINBAT LANBIDE KRISI GARAIAN

# Krisiari aurre egiteko, berriak erostea baino konpontzea hobeto?

**KRISIA** Adituen esanetan krisi garaian hainbat lanbidek onurak izaten dituzte: langileek ez dute hala uste

**ZAPATAK** Sumatu dute azken aldian zapata berri gutxiago erosten duela jendeak, tapak ez dituztelako aldatzen

**ARROPA** Jostunek diote gehiago konpontzen direla arropa erosi berriak zaharrak edo modaz pasatakoak baino

**ETXETRESNAK** Gipuzkoan telebista konpontzaileek lan gehiago dagoela dioten arren, gurean ez da hori sumatu

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Krisia, sarri entzuten den berba. Ekonomian adituek badihardute arrazoi eta konponbide bila, baina krisiaren eragina kaleko jendeak sufritzen du gehien eta horren aurrean neurriak hartu behar dira. Gastuak murriztea da lehen pausua, eta horretarako gauza berriak erosteari muzin egiten dio askok. Berria erosi ez baina berritzea, konpontzea izan daiteke irtenbide bat.

Beherapenetan arropak eta zapatak merkeago eskura ditzakegu, baina gainontzean? Zapatari familiakoa da Alberto Sotil bergararra eta Hor Konpon dendan zapata konpontzaile dihardu. Krisiaren eraginez lana gehitu zaion galdetuta, esan digu konponketak lehen beste egiten dituela, baina sumatu duela jendeak azken aldian zapata berri askorik ez duela erosi. "Zapaten tapak, takoien zoladurak, plastikozkoak izaten dira eta erosi berritan aldatzera etortzen dira zaratarik ez ateratzeko edo ez labaintzeko. Azken aldian ez da hainbeste jende etorri", azaldu digu Alberto Sotilek.



Jesus Mari Elkorok lantegian konpontzen ditu telebistak. JOSETXO ARANTZABAL



Josle dendan jarduten du makinarekin lanean Mari Jose Carmonak. J. A.



Bergarako Hor Konpon dendan zapatak konpontzen ditu Alberto Sotilek. I.A.

**ZAPATA ZAHARREN 'TUNING'-A**

Bestalde, azken boladan jendeak zapata zahar gehiago konpondu dituela dio: "Zapatei beste itxura bat eman nahi izaten diete, tuning-a egitea: takoi gehiago ipini, kolorea aldatu... Merkeagoa da konpontzea berriak erostea baino".

Euren egoera ondo dagoela esan digu; "Krisiak ezin dugu esan mesede egin digunik, baina igarri ez dugun bitartean kalte egin digunik ere ezingo dugu esan. Zapatak saltzen dituztenek sumatuko zuten, baina guk ez".

Zapatetan ez ezik larruzko jaketan ere egiten dituzte konponketak, kremailerak ipini, esaterako. Sotilen esanetan, "lehen errazera jotzen zen. Zaharra konpontzera eraman aurretik berria erosteko joera zegoen, baina orain konpontzeko joera handitu dela esango nuke. Hipotekak-eta dituen jendeak gastuei gehiago erreparatzen die. Hortaz, berria erosi baino armairuak begiratu eta zapata edo arropa zaharrak konpontzen ditu".

Hor Konponen bezero bati ere galdetu diogu konponketen gainean. "Nik beti izan dut zapatak, arropak... konpontzeko joera, ez orain krisi garaia delako", esan digu Marijok. "Zapatetan tapak aldatu izan ditut, baita zoladurak edo takoiak ere. Arropetan ere konponketak egin ditut: prakei forma aldatu, estutu... Soinean daramadan berokia, esaterako, luzeran moztu egin nuen. Bi edo hiru urtean erretiratua neukan eta berria erostea pentsatu arren, arina eta beroa izanik, berau aldatu eta kitto".

**ARROPA BATZUK MEREZI DUTE**

Zapatak ez ezik arropa ere konpontzen du jendeak. Entzuten da jostunak lanez lepo dabiltzala, baina Arrasateko Josle mertzeriako Mari Jose Carmonak esan digu ez dela hainbesterako. "Lana badago eta beherapenetan are gehiago, baina ez egin ezin dena.14 urte inguru daramatzat jostun lanetan eta jaitsi egin da kontua".

Arropak konpontzea krisi garairako irtenbidea izan daitekeen arren, ez dira asko arropa zaharrak konpontzera joaten, "gehiago konpontzen dira berriak zaharrak baino", dio Carmonak. Eramaten diete arropa mozteko, estutzeko, zabaltzeko, sorbaldakoak ipintzeko edo kentzeko... "Arropei aire berria emateko, ez erabat desegin eta berriak egiteko. Gutxi dira modaz pasatako arropa konpontzeko ekartzen dutenak".

Mari Jose Carmonaren esanetan, badago konpontzea merezi duen arroparik. "Kalitatezko praka bat badugu armairuan gordeta eta kremailera hondatu zaiolako janzten ez badugu, zazpi euro ordainduta kremailera alda daiteke. Baina jaka batean estutu, moztu... egin behar bada, hori hobeto pentsatzen du jendeak".

**ETXETRESNA BERRIAK MERKEAGO**

Zapatak, arropak eta etxetresnak ere konpon daitezke. Hala ere, gurean oraindik ez omen da joera hori sumatu. Bergarako Herran etxeko Rafak esan digunez, "konponketak ez dira igo, lehen beste egiten ditugu. Baina erosi, gauza praktikoagoak erosten ditu jendeak".

Arrasateko Jesus Mari Elkororen ustez, "Gipuzkoan telebistak konpontzen dituztenek esan didate gehitxoago konpontzen dutela. Baina gurean ez dut sumatu horrelakorik. Tresna berriek abantaila gehiago daukate eta prezio aldetik ondo daude, gainera, tresna txikiak aldatu egiten dira". Konponketa izan

ESANAK

**"Lehen zapata zaharrak konpondu aurretik berriak erosten ziren; orain konpontzeko joera handitu egin da"**

**Alberto Sotil** > Zapataria

**"Kalitatezko praka bat badugu armairuan kremailera apurtu zaiolako, merezi du konpontzea"**

**Mari Jose Carmona** > Jostuna

**"Antzina etxetresna denak konpontzen ziren, orain presio onak daudenez berria erosten da konpondu baino lehen"**

**J, M. Elkoro** > Tresna konpontzai-

Jose Mari Altube > Ehiztaria

## “Ehiztari batzuek egoera aprobetxatu dute, babesik gabeko hegaztiak ehizatzeko”



Gutxi batzuen errua denek ordaindu dutela uste du Altubek. GOIENKARIA

JASONE ZABALA > OÑATI

**Duela bi aste inguru debekatu zuten Gipuzkoan ehizatzea, elurra egiten duenean hegaztiak babesik gabe gelditzen direlako. Hori jakinda ere ehiztari batzuk ehizatzera atera dira. Aldundiak bihar kenduko du debekua Gipuzkoan. Debeku horri buruz egin dugu berba Jose Mari Altube ehiztari oñatiarrarekin.**

Gipuzkoan ehizatzeko debekua beharrezko neurria izan dela uste duzu?

Legeak argi esaten du elurrarekin ezin dela ehizatu, errespetatu egin behar dela. Baina leku batzuetan elurra egin duen arren, jendeak ehizan jardun du, eta dena kontrolatzea zaila zela ikusita, debekatzea erabaki zuten.

Halako neurririk hartu da beste inoiz?

Orain arte gutxitan gertatu da halakorik. Baina normalean elurra egiten duenean barru aldean egiten du. Aurten, berriz, kostaldean ere elur asko egin du, eta basa fauna babesik gabe gelditu da, batez ere oilagorrak. Ehiztari batzuek legez kanpoko egoera hori aprobetxatu dute.

**“Legeak argi esaten du elurrarekin ezin dela ehizatu, errespetatu egin behar dela”**

**“Elurra badago ez dago lurrik, eta hondartza eta baso ertzetara joaten dira hegaztiak”**

Zergatik debekua elurra egiten duen garaian?

Defentsa gabe gelditzen dira hegaztiak. Elurra badago ez dago lurrik, eta hondartzara eta baso ertzetara joaten dira hegaztiak. Ehiztari batek hori badaki, eta horregatik dago debekatuta. Barru aldean halako egoerak gehiago errespetatzen dira.

Bihar debekua kenduko dute Gipuzkoan. Zer dela-eta?

Mendi aldean oraindik elurra egon badago baina uste dute bi edo hiru egunetan elur asko urtuko dela eta hori izan daiteke debekua kentzearen arrazoia. Bizkaian joan den zapatuan kendu zuten eta Araban oraindik ez

Iturrieta Sagardotegia



Urtarrilaren 22tik aurrera TXOTX garaia zabalduko dugu.

Aramaio (Araba) Tel.: 945 44 53 85 - 685 72 15 93

**AHT** > PROTESTA EKITALDIA

# Hiru autobus joan ziren Debagoienetik AHTren kontrako agerraldira

Urbinako AHTren lanetan egin zuten protesta, eta 60 zauritu eta zortzi atxilotu utzi zituzten Ertzaintzarekin izandako liskarrek




Ibarrean ere egin dituzte protesta ekintzak (argazkian, Arrasatekoa). MIREN ARREGI

I.B./J.Z. > BERGARA

AHT Gelditu Elkarlanak! kale agerraldia egin zuen zapatuan Urbinan, trenaren lanak egiten dabiltzan lekuan. Jende asko gerturatu zen bertara; Debagoienetik hiru autobus joan ziren. Agerraldiak oztopo asko izan zituen, eta, esaterako, bederatzi autobus luzaroan geldi egon ziren Leintz Gatzagan jarritako kontrol batean. Azkenean, kale agerraldikoak lanak ikustera joan ziren unean, Ertzaintzak bortizki sakabanatu zituen. Ondorioa: 60 bat zauritu eta zortzi atxilotu, antolatzaileen esanetan.

**ALDERDI POLITIKOEI PROTESTA**

Bestalde, aurreko eguenean AHT gelditu! Elkarlanekoek kontzentrazioa egin zuten Arrasaten “AHT proiektua babesten duten alderdi politikoen aurka”. Kontzentrazioa Alderdi Sozialistaren egoitzaren aurrean egin nahi bazuten ere, Ertzaintzak ez zien utzi eta Arbolapetan egin behar izan zuten.

AHT Gelditu! Elkarlaneko Mila Elortzaren arabera, egiten dabiltzan kontzentrazio eta manifestazioen bidez gura dute bultzatzaileei salaketa egitea, “alderdi politikoak direlako honen guztiaren bultzatzaile eta arduradunak”.

Bestalde, AHTren lanak gure ibarrean egoera ezberdinean daudela azaldu zuen: “Gatzagan hasi eta Arrasatera arte doan zatia Espainiako Gobernuaren esku dago; Bergara-Antzuola zatia Jaurlaritzaren ardurapean dago. Jaurlaritzaren esku dagoen tartean oraindik ez dago oinarrizko proiekturik eginda, idazten ari dira; Estatuaren esku dagoen zatian, Eskoriatzan adibidez, desjabetze akten sinadura saiakera bi eginda daude eta Aramaioko tartea ere egoera berean dago; Arrasatekoa ere antzera”. Aldi berean, adierazi zuen Arrasate eta Angiozar arteko tartean orain amaitu zaiela epea oinarrizko proiektuari alegazioak egiteko, eta orain, proiektu eraikitzailea egiten dutenean, alegazioak aurkezteko aukera izango dutela.

**KRISIAZ BALIATUTA**

“Krisi ekonomikoaz baliatuta nahi dutena da hainbat lekutan AHTren lanak hasi eta aurrera eramaten ahalegintzea, dakite-

**ISTRIPUAK** > ERRIOXAN ETA ARRASATEN

## Arrasateko 17 urteko gazte bat hil zen domeka goizaldean Errioxan, auto istripuan

Debagoieneko asteburuko istripu bakarra Arrasaten izan zen domekan, eta aretxabaletar bat larri zauritu zen

I.B.> BERGARA

Domeka goizaldeko 03:25ean Arrasateko 17 urteko gazte bat, M.H.G. inizialduna, eta auto berean gidari zihoan 19 urteko Bilboko lagun bat, R.P.V. inizialduna, istripuz hil ziren Alesanco herri inguruan.

Guardia Zibilak emandako informazioaren arabera, N-120 errepidean gertatu zen ezbeharra. Azaldu dutenez, halako batean autoa bidetik irten zen eta horma bat jo zuen. Lehenago aipatutako bi gazteak hil egin ziren, eta autoan zihoazen beste bi lagun (Trebiñukoa bat eta Errioxakoa bestea) zauritu. Zaurituak Logroñoko San Pedro ospitalera eraman zituzten anbulantziaz, eta hildakoen gorpuak Errioxako hiriburuko Medikuntza Legaleko Institutura.

**ISTRIPU LARRIA ARRASATEN**

Hori ez da izan, baina, Debagoienarekin edo debagoiendarrekin lotuta asteburuko istripu bakarra. Domeka arratsaldean 70 urteko aretxabaletar batek autoaren kontrola galdu zuen Roneo parean (herriko sarreran), eta errepidetik irten zen.

Istripu horren ondorioz bi noranzkoak moztuta egon ziren 45 bat minutuz, eta Ertzaintzak zirkulazioa ondoko industria gunetik bideratu zuen.

**Mireia Larrañaga** > Goienako zuzendari komertziala

# "Merkatua.net' denda birtualean euren produktuak saldu ahal izango dituzte ibarreko dendariek"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

**Merkatua.net Debagoieneko denda birtuala sortu berri du Goienak. Denda eta negozio txikiei zuzenduta dago eta ematen die Internet bidez saltzeko aukera. Bihar, martitzena, aurkeztuko dute.**



Mireia Larrañaga. GOIENKARIA

Zer da merkatua.net?

Merkatua.net Debagoieneko denda birtuala da, denda eta negozio txikiei zuzendua, Internet bitartez euren produktuak saltzeko aukera emango du. Debagoieneko denda txikiak elkartuz egindako merkatu berri bat da, ispilua Interneten izango duena.

Nork sortu du?

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba elkartekoon ekimena da, baina ez dugu bakarrik sortu. Aspalditik dihardugu Internet zerbitzua ematen dendariei eta horrekin jarraitzen dugu. Webgune bat handi geratzen zaion denda asko dago eta guk merke ematen diegu azpiwebgune bat izateko aukera. Denda hori munduan kokatzen dugu, sarean. Eta orain gehigarri batekin: produktuak saldu ditzakete denda txiki horiek eta Internet bidezko erosketak egin bezeroek.

Zergatik denda birtual bat?

Ikusten genuen oso zaila zela, denda, jatetxe edo kulturagune bakoitzak horrelako webgune bat sortu eta kudeatzea. Hori horrela, oso interesgarria iruditu zitzaigun Debagoieneko denda eta negozio txikiek Interneten egoteko aukera izatea. Martxan jarri ginen eta Goienak denda eta negozioei euren produktuak saltzeko plataforma bat eskaintzea pentsatu genuen.

> **"Dendariendako saltzeko modu gehigarria da; erosleek, berriz, etxetik eros dezakete eta eroso-eroso etxean jaso"**

Ze abantaila ditu?

Bi abantaila nagusi daude: lehenengoa da Google bilatzailean denda txikiak ere izango direla hemendik aurrera, denda horien telefonoa eta helbidea topatu ahal izango da, adibidez. Bestetik, saltzeko modu gehigarri bat du dendariarendako. Baina abantailak erosleendako ere badira: produktua erosi daiteke eta eroso-eroso etxean jaso.

Nola eros daiteke www.merkatua.net-en?

Oso erraza da eta Interneten erosteko estandarrak jarraitzen ditu. Sartu www.merkatua.net helbidean, klikatu produktua eta saskira gehitu. Erosi zanpatzen duzunean leku seguru batean eskatuko

---

etxeko leihotik



**Ubane Madera** > 'arrasate@goiena.com'

## Zenbaitzuek ez dituzte prezioak igo aurten

Arrasateko okindegietan (Gipuzkoako guztietan moduan), ogia iazko prezio berean salduko dute 2009an. Herriko hainbat tabernari ere hasi dira prezio bereziak egiten, edo dagoeneko erabaki dute aurten ez dituztela igoko. Erdiguneko harakinek, berriz, Salegik, Otamendik eta Landaluzek txuletak eta azpizuna (solomilloa) bi euro merkatzea erabaki dute eta arkumea, berriz, zazpi euro. Eta herriko jantzi, zapata, kirol, osagarri eta bestelako saltokietan beherapenak data ofiziala baino lehen hasi dituzte aurten. Ondorioz, urtarrileko aldapa honetan badira eskaintza politak dendetan; aukerak ere bai, neguan kontsumitzen ez garelako ausartu; eta krisia krisi, erosle bat baino gehiago animatu da hori aprobetxatzera. Jakina, logikak dio halakoak egiteak eskatzen diela sakrifizioa dendariei.

> **"Dendari eta tabernariendako bezeroak, eta guretako prezio onak"**

Bada, horixe. Eskertzen dela halakoak ikusteak. Bestetan, ogi, edari eta bestelako jakiak igo edo bakero batzuk 130 eurotik gorako prezioan ipintzen dituztenean ondo asko kexatzen gara. Bada, oraingoan eskerrak ematea tokatzen zaigu, halako neurriak denon mesederako direlako: saltzaileendako bezeroak, gu-

**> Etxebizitza** mordoa egin dituzte eta asko saldu ezinda daude; etxebizitzarako eskubidea aitortzen digun Konstituzioaren puntu hori betetzen hasteko aukera ona ematen du horrek.

**> Kontrol** neurriak ez ditugu gustuko, baina krisira iristeko batzuek egin duten triskantza ikusita, kapitalismoari mugak ipintzen hasi beharko lukete erakundeek, baita herrietakoek ere.

---




GOIENKARIA

## Baionako azken hilketa matxista salatu zuten

Arrasateko Emakumearenganako Indarkeriaren aurkako Plataformak deituta, Baionan haren gizonak hildako emakumearen heriotza salatzeko elkarretaratzea egin zuten zapatuan, Arrasateko plazan. Matxismoaren azken biktimaren salaketa publikoa egin zuten ekitaldian eta 30 bat laguneko taldea elkartu zen. Tartean, ordezkari politikoak – Udaleko gobernuko kideak, Ezker Batuakoak, Zutikekoak eta Aralar alderdietakoak – izan ziren herritarrekin batera.

---

**ZERBITZUAK** > PLASTIKO BATZEA

## Urtarrilaren 27an hasiko dira baserriko plastikoa batzeko

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak emango du zerbitzu hori aurten ere

**M.B.** > BERGARA

Urtarrilaren 27an egingo du Deba Garaia Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak aurtengo lehenengo plastiko batzea. Baserri ingurunean sortutako plastikoa batzeko zerbitzua da eta hilean behineko maiztasuna du.

Batzen duten plastikoa da: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko belatza eta negutegiko plastiko zuria; plastikozko lokarriak ez dituzte batuko.

Zerbitzua ohiko auzoetatik igaroko da eta ohiko lekuetan laga beharko da palstikoa, arratsaldez. Lekuren bat aldatu nahi izanez gero telefonoz deitu beharko da




Elorrioko Arriola antzokian egin zuten zapatuan batzar orokorra Eroskiko ordezkariek EROSKI

**KOOPERATIBISMOA** > EMES PROIEKTUA

# Eroski, munduko kooperatibarik handiena: 52.000 bazkidetik gora

Enpresaren sozietate anonimoak, enpresa filialak, kooperatiba bihurtuko dira

Plana modu mailakatuan egingo dute eta urte batzuen buruan amaituko da

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Eroski kooperatibak batzar nagusia izan zuen zapatuan Elorrion. Bilerako gai nagusia izan zen erabakitzea kooperatibak dituen 48.000 langileek langile huts izaten jarraitu ala pixkanaka bazkide egin. Batzarrean erabaki zuten guztiak bazkide izatea. Hau da, enpresaren jabetzan, emaitzetan eta kudeaketan etorkizunean parte hartzeko aukera ematea.

Bi urteko azterketa eta barne-eztabaidaren ondoren erabaki zuen Eroskik zapatuan berarekin lan egiten duten sozietate anonimoak, enpresa filialak, kooperatiba bihurtzea. Sozietate anonimo bakoitzeko langileek eratuko den kooperatiba berriaren bazkide izateko proposamenari aldeko botoa ematea erabaki dute, kontratatu zituen enpresaren sozietate anonimo formula aldatuz. Gaur egun Eroski taldea osatzen duten sozietate anonimoak kooperatiba bihurtuko dira, eta langileek jabetza partekatuko dute Eroski kooperatibako langileekin, eta hori izango da gainontzeko guztien oinarria.

**MUNDUKO HANDIENA**

Hortaz, Eroskin soldatapean lan egiten duten 48.000 langileak bazkide izango dira. Gaur egungo bazkideei gehituta Eroskik 52.000 bazkidetik gora izango ditu munduko kooperatibarik handiena izatera pasatuz.

Espainian barrena hipermerkatu, supermerkatu eta bidaia agentzia guztiak kontuan hartuta 2.400 gunetik gora izango ditu Eroskik. Debagoienean 350 langile inguru izango ditu Eroskik. Gehienak Arrasateko Eroski hipermerkatukoak. Gainontzean Eroski supermerkatuetakoak: handietan 20-30 langile daude eta zortzi txikietan. Eroski bidaiak bulegoetan, berriz, langile gutxi izaten dira.

"Erabaki garrantzitsua hartu dugu gaur eta oso harro gaude horrekin. Eroskiko langile guztiek aukera izango dute bazkide kooperatibista izateko eta 50.000tik gora gara gaur. Bazkide guztiok bi urtez egindako eztabaida eta eraikitze lanak eman ditu bere fruituak", esan zuen Agustin Markaide Eroskiko presidenteak batzarraren ondoren.

Aldaketaren helburua da besteen kontura diharduten langileei kooperatibista estatusa ematea, alegia, langile guztiei ezartzea Eroski kooperatibako langileek berez dituzten lan eta gizarte baldintzak. "Berdintasun-legea gainditu, langile guztiek baldintza ekonomiko eta sozial berberak izango dituzte, sexua edo jatorria gorabehera", dio Eroskik batzarraren harira kaleratutako idatzian.

**ETAPA BERRIAREN HASIERA**

Erabaki honekin abian ipinitako prozesua modu mailakatuan egingo dute enpresa-eredu kooperatiboa onartu ostean. "Proiektua onartu izanak egutegi bat ezartzen du garatu ahal izateko, eta urte batzuk beharko ditu prozesu horrek", dio zapatuko batzarraren harira Eroskik kaleratutako idatzian.

Jabetza eta kudeaketa 52.000 langile baino gehiagorekin partekatzen duenez, Eroski pertsonek protagonismo handiagoa duten enpresaren ikur bilakatu dela diote enpresatik bertatik.

Eroskiko presidente Agustin Markaideren esanetan, "erabaki hau hartu dugu 40 urte betetzera goazenean eta etapa berri bat zabaltzen dugu

## Beldurra, Eroskiren erabakitze ahalmena Euskal Herritik kanpora mugi daitekeelako

Proiektuak sortu du mesfidantzarik bazkideengan, Eroskiren erabakitze ahalmena Euskal Herritik kanpora mugituko zen beldurrarengatik. Mondragon Taldeko hainbat kideren esanetan, "Eroskiren erabakitze ahalmena ahulduko luke, bigarren mailako kooperatiba bihurturik, eta horrek bi ondorio ekarriko lituzke: boterean gero eta gehiengo espainol handiagoa biltzea eta eragin praktikoetarako MCCtik irtetea".

Baina Eroskitik diote: "Eroskik erreferentziako kooperatiba izaten jarraitu nahi du eta bere helburu soziala edo egoitzaren kokalekua erabakitzeko ahalmena beretzat gordetzeaz gain, Mondragon Taldeko kide izaten jarraituko du".

**KPI**

## Gipuzkoak iaz inflazio joerarik altuena

EAEn %0,5 jaitsi zen KPIa abenduan Estatistika Institutuaren arabera

**I. A.** > BERGARA

EAE izan zen iaz Espainiako estatuko inflazio-joera altuena izan zuena. Urtea amaitu zuen %1,9ko tasarekin, bataz bestekoa baino bost hamarren gorago. Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera kontsumoprezioen indizea %0,5 jaitsi zen abenduan EAEn.

Inflazio-joerarik altuena Gipuzkoak izan zuen (%2,1); Arabak %2eta Bizkaiak %1,8. Prezioei dagokienez, abenduan %0,6 jaitsi ziren Gipuzkoan eta Araban eta apur bat gutxiago, %0,4 Bizkaian.

Produktuei eta zerbitzuei erreparatuz gero, abenduan inflazio-joera altuena izan zuten aisialdiarekin eta kulturarekin lotutakoek (%1,3). Prezio jaitsierarik nabarmenenak, honako hauetan izan ziren: garraioa (-%3,2) eta arropa eta zapatak (-%2,5). Prezioak mantendu egin ziren medikuntzan, hoteletan, kafetegietan eta jatetxeetan.

2008 urteari osotasunean begiratuta, inflazio-joera altuena etxebizitza arloan (%6,8) eta irakaskuntzan

**LANGABEZIA**

## Ia %16ra helduko da langabezia tasa aurten

**I. A.** > BERGARA

Pedro Solbes Espainiako Ekonomia ministroak iragarri du langabeziaren okerrena 2009an ikusiko dela Espainian. 2008an, %11,1ra iritsi da langabezia tasa eta aurten %15,9ra. Aurreikuspenen arabera pixkanaka jaisten joangoa da: 2010ean %15,7ra eta 2011n %14,9ra. Aurten 600.000 lanpostu desagertuko direla jakinarazi du Solbesek eta ez dela iritsiko lau milioi langabeen kopurura. Langabeziaren hazkundeak behartuta, aurten beste 2.000 milioi euro beharko ditu Estatuak langabeen sariak ordaintzeko.

auzorik auzo

**MEATZERREKA** > Angiozarrekin eta Bizkaiarekin egiten du muga Arrasateko Meatzerreka auzoak, eta Udalatx mendiaren magalean dago. San Valeriori eskainitako ermita dago; jaiak urtarrilaren 29an izango dira.



Auzotarrak Miatzerreka elkartean batzen dira auzoko gora beherak aztertzeko. ARANTZAZU EZKIBEL

**Inazio Zuazubizkar** > Auzo alkatea

# "Garai batean meategiak zeuden auzoan eta lagun asko lan horri esker bizi ziren"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Azken urteetan Txosa baserriko Inazio Zuazubizkar da Meatzerrekako auzo alkatea. Auzoko egoeraz berba egiteko geratu gara harekin, Miatzerreka elkartean. Izan ere, hala esaten diote auzotarrek auzoari, Miatzerreka.**

Zenbat biztanle ditu gaur egun Meatzerreka auzoak?

Baserri auzoa da, 23 bat baserri izango ditu eta biztanleak, ostera, 55 inguru. Auzoak ez dauka erdigunerik, baserriak besterik ez dira. Elkartea eta ermita dauzkagu baina ez daukagu erdigunerik.

Zein da Meatzerreka auzoaren eskari nagusia?

Aspaldiko urteetan Udalari eskatzen gabiltzana da auzoarentzat lokal sozial bat. Gutxi gorabehera, hilean behin elkartzen gara auzotarrak. Elkartean batzen gara, baina askotan hemen egoten den zarata dela-eta ezin da berba ere egin. Azkeneko 25 urteotan ari gara lokala eskatzen.

Saneamenduarekin arazoak dituzue, eta kolektore bat ere eskatu duzue.

Bai, nik uste dut arazo azpimarragarriena litzatekeela saneamendua egiteko beharra dagoela. Kolektore bat sartu beharko litzateke ur zikin denak jasotzeko. Gaur egun putzu septiko bidez egiten dugu; eta, batzuk hori ere ez dute eta zuzenean errekara botatzen dute. Uste dut hori aldatu beharra dagoela.

Bestalde, baserri batzuetarako bidea oraindik asfaltatu barik dago eta horri konponbidea ematea eskatzen dugu. Errepide nagusitik baserrira arteko bidea asfaltatzea eskatzen dugu. Zati batzuk asfaltatuta daude, baina aspaldi egindako lana da eta gainera gaizki egindakoa.

Gainerakoan, ura eta gasa nondik jasotzen duzue?

Ura badaukagu. Uraren lanak orain dela 20 urte inguru egin ziren; herriko ura sartu zuten. Batzuetan herriko ura iturburuekin nahasten da eta orduan Urkuluko ura sartzen digute. Udala auzora ere hemengo ura eramaten dute; baina, txarra datorrenean hara ere Urkulukoa eramango dutela uste dut.

Gasik,ostera ez daukagu. Hasi ziren kolektoreari sarrera ematen baina Kanpantzar tailer ingururaino sartu zuten. Eskatu genuen ea posible zen baserri guztietara igotzea; baita, Internetera konektatzeko zuntz optikoa ere. Baiezkoa esan ziguten, baina ez dugu beste erantzunik jaso.

> **"Saneamendu beharra dauka auzoak, kolektore bat sartu eta ur zikin guztia jasotzeko"**
>
> **"Esaten dute 1845ean Isabel II.a eta haren ama Maria Cristina Galarrako koban egon zirela"**

Aspaldi batean meategiak zeuden hemen.

Bai, lehenago meategiak egon ziren, baina gaur egun galduta daude. Mea dena aterata dago, orain haitza dago bistan. Nik uste dut garai batean auzoko jende asko meategitik bizi zela.

Udalatx magalean egonda, ibilbide politak egongo dira auzoan.

Mendi ibilaldi oso polita dago; aurten Besaideko beteranoen martxa egin dute, esaterako. Monterron parketik irtenda, errepidea zati honetan bakarrik zapalduta, Udalatxeraino igo daiteke. Gainera, bidea Galarrako koben ondotik pasatzen da.

Esaten dute 1845ean Isabel II.a eta haren ama Maria Cristina Galarrako koban egon zi-

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urtarrileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
40 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA GBC- IURBENTIA BILBAO BASKET
BRUESA GBC- CAJASOL
Bidali AG BRUESAIURBEN 5533 zkra
Bidali AG BRUESACAJA 5533 zkra

UMEENTZAKO LIBURUAK

Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
Bidali AG LIBURUAK 5533 zkra

ZIRA

EKFB Euskal Selekzioko zira bat.
Bidali AG ZIRA 5533 zkra

KAMISETA
DANBAKA

Danbakako kamiseta bat.
Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

SARI NAGUSIA:
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT

www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Garazi Hach Embarakek odol sahararra eta euskalduna, biak, ditu. Are gehiago, Saharako errefuxiatuen gune baten luzaroan bizi izan zen. Aspalditik Ormaiztegin bizi da, baina tarteka Saharara joaten da, eta parean dituen aukera guztietan Saharako herriak bizi dituen bidegabekeriak salatu eta han gertatzen denaren informazioa zabaltzen dihardu.

**Garazi Hach Embarek** > Saharar euskalduna

# “Janaria bidaltzea baino premiazkoagoa da Espainiako gobernua presionatzea”

**IKER BARANDIARAN** > ANTZUOLA

**Hach Embarekek bere burua saharar euskalduntzat dauka. Aita sahararra eta ama euskalduna, Saharako errefuxiatu gune baten bizi izan zen luzaroan Garazi. Egubakoitzean Antzuolan izan zen, bere sorterriaren gainean berba egiten.**


Garazi Hach Embarek egubakoitzean Antzuolan izan zen Sahararen gaineko berbaldi bat ematen.
JOSETXO ARANTZABAL

Zer daukagu ikasteko euskaldunok sahararrengandik?

Batez ere ikasi behar dugu elkarrekin egon behar dugula edozein gatazkaren aurrean eta ez hain sakabanatuta. Sahararrek badakite hori, baina hemen, Euskal Herrian ez daukagu hori hain argi.

Palestinako sarraskiari begira gauden honetan, nazioarteko gobernuak gogoratzen dira Sahararen egoeraz?

Nazio Batuen Erakundeak zein nazioarteko komunitateak, biek, oso garbi utzi dute gatazka eta herrialde txikiei ez dietela kasurik egiten. Gure kasuan marrokiarren aurrean utzi gaitu; eta Gazako kasuan ez dute Israel bere lekuan jarri gura. Oso argi daukagu Israel eta Maroko biak estatu genozidak direla eta inork ez diela ezer esaten. Nazio Batuen Erakundearen gaineko konfidantza aspaldi galdu genuen.

Zein da Saharak daukan premia handiena?

Gure askatasuna lortzea, inork ahaztu ezin duena; eta baita errefuxiatuen kanpalekuetan dagoen beharra asetzea ere: hau da, gosea eta sendagai falta. Eta zonalde okupatuetan errepresioa, jipoitzea eta torturatzea ekiditea. Hori konponduko litzateke nazioarteko komunitateak Espainia eta Maroko behartuko balitu konponbide bat ematera eta guri askatasuna ematera.

Zein da Marokoren gobernuari leporatu beharreko min handiena?

1975ean Espainiak sartzen utzi ziola eta ordutik eskubide guztiak urratu dituela inork ezer esan barik. Gure eskubide guztiak zapalduta daude ordutik.

Zelako eskubide urraketak?

Errefuxiatuen kanpalekuetan, jateko, duintasunez bizi izateko eta gure herrian bizi izateko eskubideak falta dira. Zonalde okupatuetan, berriz, berba egitekoa, adierazpen askatasuna, duintasunez ikastekoa eta lan egitekoa.

Zona okupatua esaten duzunean zer eremutaz ari zara?

Mendebaldeko Saharataz, 1975etik Marokok okupatuta dagoena. Bertan, zona okupatuan, 400.000 eta 500.000 pertsona artean bizi dira. Marokoarrek altxa zuten hesi bat Sahara erdibitzen duena, eta zona okupatuetan bizi direnak marokoarren opresioa sufritzen daude oso egoera larrian.

Aspaldian Sahararen egoeraren gaineko berbaldiak ematen zabiltza. Mota askotako lekuetan eta hartzaile askorendako aritzen zara, ezta?

Bai, elkarte askotatik deitzen naute berbaldiak egiteko eta hara eta hona ibiltzen naiz. Hartzaile mota asko izaten dira, baina azken finean gai horren gaineko egia jakin gura dutenak dira guztiak. Komunikabideek islatzen dute eurei interesatzen zaiena bakarrik, eta hemen gauza asko daude isilduta, batez ere zona okupatuen gainekoa.

NAZIOARTEA

**“Nazio Batuen Erakundearen gaineko konfiantza aspaldi galdu genuen”**

BORTXAKETAK

**“Orain dela gutxi, bost gizonezkok emakume bat bortxatu dute alabaren aurrean”**

ZONA OKUPATUA

**“Egoera latzena Mendebaldeko Saharako zona okupatuetan bizi dute, Marokoren pean”**

Zelako lekuetan eman izan dituzu berbaldiak?

Euskal Herriko eskola, kultura etxe eta bestelako leku askotan egon naiz, elkarteek deituta. Espainian ez dut inoiz berbaldirik egin, baina inoiz Ingalaterran ere izan naiz horretan.

Zer da berbaldi horietan entzuleak gehien harritzen dituena?

Hartzailearen araberakoa da hori. Txikienak kanpalekuetako bizimoduak harritzen ditu: oherik erabiltzen ez dutela eta halakoak; nagusienak, berriz, historikoki arazoa nondik datorren eta Espainiako gobernuaren erantzunkizunak, batez ere.

Zona okupatuetara bueltatuz, zeintzuk dira han egiten diren eskubide urraketa nagusienak?

Ugariak dira, baina azkenekoak gogoratzearren orain dela gutxi jakin dugu zazpi aldiz espetxean egon den gizon bati bizkarra txikitu diotela eta elbarri ez geratzeko ebakuntza garrantzitsuak behar dituela; edo bost gizonezkok emakumezko bat bere alabaren aurrean bortxatu dutela. Halakoak oso sarri gertatzen dira eta Marokok inpunitate osoa dauka.

Egia da euskaldunok Sahararekin elkartasun handia dugula, edo uste duguna baino txikiagoa da? Laguntza hori da benetan behar dena?

Bai, egia da elkartasun hori handia dela; eta baita Espainiako herritarren aldetik jasotzen dena ere. Hala ere, asko berba egiten da Saharaz, baina badirudi ohitu egin garela, besterik barik. Ohitu gara janaria bidaltzera,


ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK
ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK ZABALIK

**kale inkesta**

# Euskararen erabilera pixka bat jaitsi da Bergaran. Sumatu duzu gutxiago egiten dela?



**Kontxi Etxeberria**
Erretiratua
Bergara

Nik ez, alderantziz erabilera igo egin dela esango nuke. Lehen egon zen garai bat ez zena kalean askorik egiten, baina umeak ikasten hasi zirenetik gehiago egiten dute. Guk ere lagun artean gehienok egiten dugu.



**Iñaki Acebo**
Langilea
Bergara

Aitak eta arrebak egin arren, nik neuk ez dut euskara egiten. Baina kalean ere gutxi egiten dela uste dut. Umeek euskaraz hitz egiten dute baina gazteek, 20 urtetik gorakoek gero eta gutxiago.



**Xabier Uribesalgo**
Langilea
Bergara

Jaitsierarik ez dut sumatu, betiko antzera hitz egiten dela uste dut. Falta da euskara gehiago erabiltzea. Nik neuk egiten dut euskara, beharbada ez behar beste baina saiatzen naiz euskaraz egiten.



**Naiara Intxausti**
Langilea
Bergara

Nik neuk ez dut uste, alderantziz iruditzen zait saiatzen garela euskara gehiago egiten, ni koadrilakoekin behintzat bai, euskaraz egiten dugu normalean. Gazteen artean erdera gehiago entzuten da beharbada.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> "Arrasate herri zikina da"**

Arrasateko kaleen egoeraz suminduta idatzi du irakurle batek. Azaltzen duenez, herria beti iruditu zaio zikina, "batez ere erdialdea" eta azken egunetan Bergara eta Oñatitik ibili eta gero, "baieztatu eta bere "herriaz lotsatzeko aukera" izan du. "Eguenean Oñatitik bueltatu nintzean, hango txukuntasunaz txundituta Ferrerias kalean zabor poltsak zabalik eta zikinkeria aurkitu nuen kalean, Seberon paperak lurretik, graffitiak edonon...". Lotsagarria iruditzen zaio Arrasate zelako gutxi zainduta dagoen: "ereduak hartzeko ez dago oso urruti joan beharrik Oñati eta Bergara herri ondo txukunak dira eta Arrasaten baina askoz aurrekontu potoloagoa ez dute izango", amaitzen du.

BERGARA

**> Anbulatorioan txanda beranduegi ematen dutelako kexa**

Irakurle batek idatzi du harrituta eta kexati Bergarako anbulatorioan txanda beranduegi eman ziotelako. Irakurleak azaltzen duenez, gripea zuela-eta deitu zuen anbulatoriora aurreko astean txanda hartzeko. Honela dio: "eman bai, eman zidaten txanda baina hilaren amaierarako eman zidaten ordua". Azaltzen duenez, hile amaierarako pasatuta edo okerrago egongo zela eta ez du ulertzen nola eman dezaketen txanda hain berandu. Galdetzen du ea mediku falta den edo "garrantziarik

**usteak uste**

**Jon Berezibar**

# Merkatal kalea

Merkatal zentrorik oraindik ez dute ireki baina deigarria da oso herrietako erdiguneek horien geroago antz handiagoa daukatela. Arrasatekoak eredu moduan balio lezake. Betiko establezimenduak ixten doaz poliki-poliki. Horren adibide da ale honetan aitatzen dugu Murua gozotegia, kate batek orain kudeatuko duena. Kateak aipatuta gozotegi ezagunaren kalean irish frankizia bat dugu, aurten janari txinatar denda bat zabalduko dute eta plazan bertan kate alemaniar batek zabaldu du denda orain dela gutxi. Inguruan bertan lurrindenda kate ezagun bat dugu eta mendirako arropen beste bat. Betiko poliki-poliki ixten doaz kate horien aurrean. Agian estalpea soilik faltako zaio kaleari merkatal gune izateko.

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

# Ongi etorri, anhitz

"AnHitz du izena zientzia aditu birtualak; sortu duen proiektuaren izen bera da hori. Prototipoa da oraingoz, eta zientziaz bakarrik daki, baina neurtezina da haren baliagarritasuna, garatuz gero hamaika erabilera izan baitezake proiektuak (...)."




Joan dan eguakoitzian, Berria-k: AnHitz zientzietako neska aditu birtuala gure artian da; zientziaz baño ez daki baña neurteziña da haren baliagarrittasuna.

Hiruzpalau enpresak alkarren artian egindako lanari esker etorri da AnHitz Euskal Herrira, gurera. Une polittian datorku neska bizkorra, baña, honezkero, iñork baño hobeto dakixenez, hobe dauko banku-jende kakatsuengandik aparte ibiltia buru kabletsuan neurriz gañeko endrerorik nahi ez badau behintzat.

Estimauko geunskio askok AnHitzi argittuko baleusku zela egin leiken lapurretan –urtetan egin be!– munduko banku dirutsuen eta kontrolauenetan, iñor konturau barik gaiñea; eta gero euren keizpetan daguan bankuan jarrita, patxadarik ederrenian, periodikua leitten egon! Hori da lapursaldia! Eta bankuburuen artian iñork ez dagiala dimisiñorik emon, ez damu-berba erdi esan, ez peleletasun-errekonozimenturik egin.

> **"Kutxen bat egittioi txakurren salara bialdu zeben, eta ez dau inork dimitiru"**
>
> **"Estimauko geunskio AnHitzi argittuko baleusku zelan egin lapurretan"**

Eta juez-jendia? Eta fiskal eta poliziak? Ze esaten daue horreik? Entretenimendu ederrian, danak: hipotekiaren ordainketan, seigarren eten jarraixa dalako, familixia kalera botatzeko gertakizunetan!

Hemen, Euskadi partian, berriz, bolada batian, zarata ederrian entretenidu jakuz hiru Kutxak. (Eurek Aurrezki kutxa esaten dotse serixo-serixo, gañera!) Bat egingo zebela eta holako kalamatrikak erabilli zittuzten behin da barriro han eta hemen. Azkenian, bat-egittioi txakurraren salara bialdu zeben... baña horregatik ez dau iñork iñon dimisiñorik emon ondion, ez paretik alde, porrota dalata! Diñue, hor konpon, Marianton, txakurrak buztana beria jon eta allakuidaus.

AnHitz, zure jakitturia luziaren premiñia izango da, bai, hemen eta, behinguan etorri zaranez, ezeizu behintzat joateko inungo prisarik izan ondion, lotsaz-argal bezain mozkinzabal diran kutxazain eta bankuzainen artian lan errezik izango ez badozu be.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Julen Iriondo, Jon Berezibar, Irati Agirreazaldegi, Edu Mendibil **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Garagartzan dagoen ibilgailuak mantentzeko eremua itxita, hilaren 30era arte **> 15**



**> OÑATI**
Corrado Masaccik txotxongilo erakusketa zabalduko du bihar kultur etxean **> 18**



**> ARETXABALETA**
Iturriondo parkeko 63 zuhaitz eta zuhaixka espezie izendatu dituzte euskaraz **> 19**



Aretxabaletan materia organikoa jasotzeko 19 edukiontzi jarri zituzten irailean. Programa pilotuan parte hartu dutenek giltza bana daukate edukiontzia zabaldu eta bertan materiala sartu ahal izateko. J. ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > HONDAKIN BILKETA

# Materia organikoa edukiontzietan jasotzeko bigarren fasea abian

**BIGARREN FASEA**
Irailean Aretxabaletan abian jarritako plan pilotuak jarraipena izango du otsailean

**HERRITARRENDAKO**
Saio informatiboak otsailaren 19tik 23ra; izenematea zabalik urtarrilaren 23ra arte

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Hondakinen gai organikoa aparte jasotzen eta horrekin konposta egiten hasteko esperientzia pilotua abian jarri zuen irailean Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak. Aretxabaleta izan zen aukeratutako herrietako bat; bigarren faseari ekingo diote.

Marroi koloreko 19 edukiontzi estrategikoki kokatu zituzten Aretxabaletan eta irailean abian jarritako lehen fasean 333 familia unitate parte hartzaile izan dira, Aretxabaletako etxeen %13 hain zuzen. Edukiontzi marroietara etxean sortzen dugun zabor poltsaren %40 bideratu daiteke: fruta, barazki eta otordu hondakinak; lore eta landareenak; sukaldeko papera; kafe eta infusio hondarrak; arrautza oskolak, fruitu lehorren azalak eta fruituen hezurrak; eta kortxozko tapoiak.

**BIGARREN FASEA**

Lehenengo fasean gai organiko gordina eta begetala bakarrik botatzea eskatu zieten parte hartzaileei, jasotakoarekin Azpeitiko Lapatx konpostaje plantan konposta egiteko; bigarren fasean gai organiko guztiak bota ahal izango dituzte: begetala, animalia jatorrikoa eta jakiak, prestatutakoak zein prestatu gabeak. Bestalde, lehenbiziko fasean parte hartzerik ez zutenei zuzendutako saio informatiboak izango dira otsailaren 19tik 23ra bitartean.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Mikel Jaio Mankomunitateko Ingurumen zerbitzuko arduraduna da. Haren arabera, orain arte egindako lana ona izan da: "Balorazioa positiboa da, bai. Kantitateari dagokionez, material kopuru altua jaso da Aretxabaletako edukiontzietan; izena eman zutenak ondo egiten ari dira lan. Edukiontzietara sartzen duten materialaren %95 kalitatekoa da; %5etik behera plastikoak eta beste gai batzuk. Kantitate eta kalitate aldetik es-

## Gaur egun Azpeitira, Lapatxera eramaten den materiala, etorkizunean Epelera

Bigarren faserako parte hartzea handitu nahi dute eta lehen kanpoan geratu zirenek aukera izango dute izena emateko. Epea datorren egubakoitzera arte (hilak 23) dago zabalik eta interesatuek bi aukera dituzte: Arkupe kultura etxera jo (943 08 10 01) edo anabel@aretxabaleta.net helbidera idatzi. Aretxabaletarekin batera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak (mankomunitateekin, udalekin eta Diputazioarekin elkarlanean) Azpeitian, Azkoitian, Zumaian, Zarautzen eta Donostiako Amara auzoan egin du proba. Gaur egun Azpeitira, Lapatxeko konpostaje plantara eramaten dute Aretxabaletan jasotakoa (irailean 1.260 kilo eta urrian 5.280). Etorkizunera begira, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak Debagoienean, Epelen, planta bat egitea aurreikusi du.



Herritarrak kalera ateratako margolanei begira. J.I.



Koadroei argazkiak ere atera zizkieten batzuek. J.I.



Donostiatik ere etorri zen jendea Bergarara, propio herriko artisten lanak ikustera. JULEN IRIONDO

**BERGARA** > HERRIKO HAINBAT PINTOREK DUTE ESTUDIOA AUZO HORRETAN

# Arrakasta handia izan du Boluko artisten ate irekien jardunaldiak

Estudioak ireki eta lanak kalera atera dituzte Bergarako Bolu auzoan bizi edo lan egiten duten artistek

**JULEN IRIONDO** > BERGARA

Bergarako Bolu auzoko Aran-Erreka kaleak itxura berezia hartu zuen domeka eguerdian. Artelanez eta haiek ikustera joandako herritarrez bete zen zeharo.

Bolun bizi edo lan egiten duten artisten ekimena izan da, aurten bigarren aldiz egin dutena. Luis Laskurainek aitortu digu nahikoa jatorri bitxia duela ate-irekien egunak: "Bolu auzoan herriko artisten bederatzi estudio daude, horietako sei kale honetan bertan. Zertan aritzen garen ez zekien jende askok arraro begiratzen zigun, koadroekin eta materialarekin beti aurrera eta atzera. Iaz pentsatu genuen egiten genuena erakusteko auzokoentzat horrelako gauza bat antolatzea. Oihartzun handia izan zuen, eta aurten beste izaera bat eman nahi izan diogu, herritarrei eta kanpokoei ere deialdia eginez".

**ERANTZUNAREKIN GUSTURA**

Ekimenaren bultzatzaileak gustura zeuden izandako erantzunarekin: "Donostiatik ere etorri dira gure lanak ikustera". Laskurainek dio etxean bertan baloratzen dela gutxien egiten dutena: "Japonian, Italian, Frantzian, New Yorken... egin izan ditugu erakusketak. Jendeak uste du gurea zaletasuna dela, baina hori baino zerbait gehiago da. Maila handia dago Bergaran,

**BERGARA** > AHUNTZAREN IKUSKIZUNA

# Inoiz hilko ez den ikuskizun bitxia, denboraz kanpokoa

Ahuntza, eskailera eta teklatua, horiek dira denboraz kanpoko ikuskizunaren osagaiak

**I.B.** > BERGARA

Askok uste zuten Margarita ahuntza hilda zegoela eta dagoeneko ez zela halako ikuskizunik izango, baina ez da horrela.

Egubakoitzean Bergarako erdigunean agertu ziren ahuntza, animaliari aginduak ematen bakarra den aitona eta teklatuak jotzen dituen gaztea, eskailera eta guzti, jakina.

Askok esango dute oso ikuskizun castizo-a, denboraz kanpokoa dela, baina gezurra badirudi ere, jende dezente



Aitonak agindu moduan ahuntza geldi-geldi egon zen umeen eta bestelakoen begiradapean. IKER BARANDIARAN




Domekako krosean 69 lagunek hartu zuten parte. JOSETXO ARANTZABAL




Txikiek eta nagusiek, kroseko parte hartzaile guztiek, jaso zituzten sariak. J.A.




Neskatila talde bat, kroseko irteera aurretik. J.A.



Umeendako jolasekin txikiek eta nagusiek ederto pasatu zuten. J.A.




Bergarako korrikalariak izan ziren nagusi, baina inguruko herrietatik ere partaide dezente etorri zen. J.A.

**BERGARA** > SAN ANTON AUZOKO JAIAK

# Eguraldia lagun ospatu zituzten Sanantonabat jaiak Bergaran

Krosa, mus txapelketa, meza, auzo afaria eta umeendako jokoak izan dira ekitaldi nagusienak

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Urtero moduan jende asko gerturatu zen asteburuan Bergarako San Anton auzora. Auzo txikia izan arren, tradizio handiko jaiak dituzte han eta gustura ibiltzen dira kaletarrak zein auzotarrak, jai giroan.

Herenegun, zapatua, izan zen San Anton eguna eta meza nagusian, mus txapelketan eta herri afarian jende dezente batu zen. Giroa ere ona izan zuten, eta ez zen umorea falta izan.

Domekan, berriz, nahiz eta egun handia ez izan, izan ziren jendea erakartzeko nahikoa ekitaldi. Hala nola, Umore Ona abesbatzak esku hartu zuen meza nagusiaz gain, krosa, euskal kirolak eta beste egin zituzten.

San Antoneko krosa Bergarako beteranoenetakoa da, eta aurten 32. edizioa ospatu zuten; ez hori bakarrik, antolatzaileen esanetan, inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren: 57 heldu eta 12 gaztetxo, hain zuzen ere.

**KROS HERRIKOIAREN ARRAKASTA**

Bergararrek ez bakarrik, antzuolar, oñatiar, arrasatear, aretxabaletar eta ermuarrek ere korrika egin zuten; eta guztiek jaso zuten sariren bat. Nagusien lasterketan Iker Larrea izan zen gizonik azkarrena; txikien artean, berriz, Etxabe anaiak iritsi ziren lehenengo helmugara. Beterano onena De

**OBRAK** > FERIXALEKUKO IGOGAILUAK

# Hastear dira Otalora kalea eta Altamira auzoa lotuko dituzten igogailuen lanak

15 eguneko epean hasiko dira obrak; aurrekontua, bi milioi euro baino gehiago da

Bi igogailu egingo dituzte guztira, eta lanek urtebete baino gutxiago iraungo dute

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Asteon edo datorren astean hasiko dira Ferixalekuko igogailuen obrak. Bi igogailu izango dira, eta Otalora kalea Altamira auzoarekin lotuko dituzte: lehenak, Otalora kalea eta Uarkape pilotalekuaren atzetik datorren Gernika pasealekua; eta bigarrenak, berriz, pasealekua eta Jose Luis Iñarra kaleko goiko aldea.

**URTEBETE BAINO GUTXIAGO**

Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi duenez, lanok "urtebete baino gutxiago" iraungo dute; hau da, proiektua onartu zenean baino epe laburragoa izango dute arduradunek dena gertu uzteko.

**GAZTETXE KANPOAN, EZ AMAIAN**

Ez da obra amaitzeko epea hasierako proiektutik aldatu den gauza bakarra: igogailuen kokalekua ere aldatu dute. Hasiera batean Amaia antzokiaren ondotik –Ferixalekuko saskibaloi kantxa dagoen tokitik– pasa behar zuen igogailuak, eta orain, gaztetxe aurretik pasako da lehen igogailua –alboko irudian–. Hau da, egun dagoena kendu eta beste bat jarriko dute. Gaztetxeari ez dio kalte handirik eragingo, Hirigintza Sailak jakinarazi duenez. Posible da egun zehatz baterako gaztetxea itxi behar izatea, baina ez denboraldi baterako.

Hala, Udalak aditzera eman duenez, kokaleku aldaketaren arrazoiak argiztapena eta segurtasuna izan dira. Hau da, antzoki ondotik abiaraziko balitz, igogailuak Gernika pasealekuko leku "ilun eta bakarti" batera emango luke. Kokaleku berriak "argiztapen handiagoa" duela dio Udalak, eta baita bertatik jende gehiago ibiltzen dela ere. Hortaz, lekua seguruagoa da.

**ENPRESA BI, LANEN ARDURADUN**

Ferixalekuko igogailuak Construcciones Amenabar SA eta Orona S. Koop. enpresek eraikitzen dihardute. Enpresa biek, halako kasuetan maiz egiten denez, UTE delako subjektu juridikoa sortu dute (aldi baterako enpresa elkartea).

Hala, lanen ardura osoa izaera juridikoa duen enpresa berriarena izango litzateke. Lanok egiteko, inbertsio



Gaztetxearen kanpoaldean egingo dute lehen igogailua. JOKIN BEREZIARTUA

> EMAKUME TXOKOA

### Urtarrilaren 29a, ikastaroetan izena emateko azken eguna

Emakume Txokoak 2009ko urtarriletik eta martxo arteko egitaraua atera berri du. Hamaika ikastaro antolatu dituzte; besteak beste, euskara ikasteko hastapen ikastaroa, pilates eta yoga ikastaroen hastapenak, autoestimua eta hazkuntza pertsonala, barreterapia ikastaroa eta gaur egungo dantza.

Izena emateko azken eguna urtarrilaren 29a da. Prezioak ezberdinak dira ikastaroen arabera, eta langabeek eta arrasatearrek merkeago izango dituzte. Argibide gehiago, Emakume

> IKASTAROAK

### Eskulan eta orratz lanen ikastaroak antolatu ditu EKINek

Eskulan ikastaroan, talde txikian (10-12 lagun) eskulanetako teknika ezberdinak irakatsiko ditu Mila Akizuk. Denetariko materialak erabiliko dira, hala nola egurra, birziklatutako materialak eta kristala. Martitzenero izango dira, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara.

Bestalde, orratz lanen ikastaroa Asun Mendizabalek emango du, eta puntu, gantxillo, bainika eta gurutze puntu teknikak landuko dira, besteak beste. Eguenero, 15:00etatik 17:30era. Ize-

**OBRAK** > GARAGARTZAKO IBILGAILUAK MANTENTZEKO EREMUA

# Autoak mantentzeko gunea itxita, bihartik

Urtarrilaren 30era arte itxiko dute, obrengatik; baina baliteke berriro itxi behar izatea aurrerago

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Bihartik (martitzena) zapatura bitartean (urtarrilak 30), Garagartzako Ibilgailuak Mantentzeko Eremua itxita izango da. Ezustekorik ezean, gaur bertan hasi dituzte txabola bat eraikitzeko obrak instalazio haietan.

Udaleko Obra Sailak jakinarazitakoaren arabera, txabola horretan zerbitzu berriak ipini gura dituzte.

Batetik, pertsona batendako lekua egokituko dute. Langile horrek bi zeregin izango ditu: Ibilgailuak Mantentzeko Eremuaren mantentze-lanak egin eta behar duenari instalazio haien gaineko informazioa ematea.



Ibilgailuak Mantentzeko Eremuak erabiltzaile asko izaten ditu. JOKIN BEREZIARTUA

**KOMUN PUBLIKOA**

Bestetik, txabolaren beste zati batean komun publikoa ipini behar dute. Moises Altunak, Obra Saileko teknikari buruak, emandako azalpenen arabera, ikusi dute inguruko herrietan, orokorrean, azken hiruzpalau urteetan komun publikoen falta daukatela.

Hori horrela, Udalak azkeneko urteotan herriko hainbat puntutan komun publikoak ipini ditu: "Seber Altuben ipini genuen berria, Monterrongoa berritu genuen, iaz Garibain beste bat ipini genuen eta helburua zen 2008ko aurrekontuarekin beste komun publiko bat ipintzea".

Komun berriarendako leku posibleak aztertzen ibili zen Udala: "Oinezkoen zumardian edo Aretxabaletara bidean ipintzea pentsatzen ibili ginen", dio udal teknikariak, baina gaineratu du azkenean erabaki zutela Garagartzara bidean ipintzea, uste dutelako "leku aproposa dela hura, jende asko dabilelako paseoan".

**KOMUN TRADIZIONALA**

Komunari berari dagokionez, ez da izango herriaren erdigunean ipini dituzten auto-garbiketa funtzioa duten komun

**HAUTESKUNDEAK 09**

## D3M aurkez dadin sinadurak batzen

**J.B.** > ARRASATE

D3M ekimena sinadurak biltzen hasi zen joan den astean Euskal Herri osoan. Arrasaten ere hasiak dira sinadura bilketak.

**BAZ-EN ETA NOTARIOTZAN**

Sinadurak BAZen eta notariotzan jasoko dira. Sinatzeko azken eguna urtarrilaren 23a izango da. Hona, BAZeko ordutegiak: astelehenetik egubakoitzera, 12:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara eta zapatuan, 10:00etatik 12:30era. Hilaren 20an ez da sinadurarik jasoko.

Notariotzan: astelehenetik eguenera, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era eta egubakoitzetan,

**JENDARTEA** > NEGOZIO ALDAKETA

# Aurpegi berriak, baina betiko gozoak aurrerantzean ere

Eskuz aldatuko dute Erdiko kaleko gozotegi ezaguna, baina esentziak berdin jarraituko du

Berrikuntza eguneroko ogia izango da, Ogiberri katekoa



Nerea Trompeta (saltzaile berria) eta Mariangeles Muruamendiaraz, pasten erakusmahaian. JON BEREZIBAR

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Eguaztenean ipini zuten errotulu berria, Ogiberri, eta aurrerantzean etapa berriari ekingo dio Arrasateko gozotegi historikoetako batek. Eskuz aldatuko dute denda, baina xarmak eta, batez ere, pastel goxoek berdin jarraituko dute. Ogiberri kateak hartuko du gozotegia eta berrikuntza moduan ogia ere salduko dute. Bigarren berrikuntza salmahaian egongo diren aurpegiak dira: aurrerantzean, Nerea Trompeta bergararra eta haren laguna egongo dira Muruan.

Urtetako lanaren nekea, batetik, eta, bestetik, gozotegia uzteko pena pilatzen zaizkie Mariangeles eta Mari Carmen Muruamendiarazi, bezeroak hartzeaz hainbeste urtean arduratu diren ahizpei: "Oraintxe hasi zaigu jende guztia esaten pena dela, eta guri ere hasi zaigu hartxo hori pizten", dio Mariangelesek, baina aitortzen du "urte asko eta lan handia" egin duela eta disfrutatzeko gogoa ere badaukatela. Dendak 69 urte bete ditu eta ez da alferreko lana izan, Muruako pastelak ondo estimatuak dira-eta; bai herrian zein kanpoan ere. Bertako bonba eta hostopilek konpetentziarik ez dutela diote askok eta askok. Horren aurrean, barre egiten du Mariangelesek eta esaten du artisau lanean eta osagai naturaletan dagoela gakoa, baina aitortu ere egiten du kreman dagoela euren sekretua. Hala ere, inor ez arduratzeko dei egiten dute Muruakoek, ahizpek utzi, baina pastel eta gozoek salmahaian jarraituko dute-eta. Izan ere, aurrerantzean Ogiberri okindegi katea arduratuko da gozotegiaz, baina Zubillagako lantegiak bere horretan segituko du, hango bost langileekin. Aldaketak ere egongo dira, hala ere. Aurpegi berria izango du dendak, Nerea Trompeta bergararra; eta, gozoez gain, ogia ere ekarriko dute egunero Muruara.

**ERRETIROAZ DISFRUTATZEA**

Horixe da orain ahizpek egingo dutena. Gozotegira joateari ez ei diote utziko, kafea han hartuko dute, "baina erakusmahaiaren beste aldetik". "Osasuna eta askatasuna" da orain gura dutena. Utziko dutelako pena adierazi die jendeak kaletik, eta horrek ere gozotegiari zaion estimua erakutsi die. "Guri ere alde batetik pena ematen digu, azkenean bezeroak etxeko modukoak bihurtu direlako, hainbeste urte igaro eta gero", azaltzen du Mariangelesek; hura 10 urterekin hasi zen han lanean eta 55 urte egin ditu bertan.

Muruamendiaraz dagoen lokalean San Jose kooperatiba ezaguna egon zen lehenago. Gozotegiari dagokionez, haien aitak lehenago Aizkora taberna zegoen tokian ipini zuen eta gero hartu zuen Erdiko kaleko behea. Aitak ofizioa Elgoibarren ikasi eta bi alabak ipini zituen saltokian gero. Eta hirugarren belaunaldiaz galdetuz gero, hau da, euren seme-alabez, garbi erantzuten du Mariangelesek: "Ezkondutakoan nik garbi esan nion senarrari: "Seme-alabak edukitzen baditugu ez dira gozotegira joango", eta guk zuzenean sekula esan ez badiegu ere, eurek ikusi dute zelan ibili garen gu".

**"HERRI GOZOZALEA"**

Arrasateko gozotegi klasikoetatik geratzen den azkena da Muruamendiaraz. Hala ere, gurea "herri gozozalea" dela dio Mariangelesek; eta, gainera, bertako gozogintzaz "harro" gaudela, kanporako enkargu mordoa egiten dute-eta Muruan. Hasi, "ultramarinos" batekin hasi ziren eta batez ere pastak saltzen zituzten. "Lehen, pastelak eta tartak egun berezietarako izaten ziren, baina gaur egun egunero saltzen ditugu", dio Mariangelesek. Kafetegia ere bada Muruamendiaraz, eta hori ere ohiturak ezarri zuen: "Garagartzatik-eta kalera etorritakoek zerbait beroa eskatu ohi ziguten eta azkenean kafe-makina ipini genuen".

ESKU-ALDATZEA

## Hilabeteko "tregoa", eta gero Ogiberrikoak

Muruamendiarazekoek txantxetan diote hilabeteko "tregoa" emango dietela berriei. Hain justu ere, Nerea Trompeta eta haren laguna izango dira gozotegiko aurpegi berriak eta Nereak berak aste pare bat darama dagoeneko Muruamendiaraz ahizpekin salmahaian. Hilabete barru amaituko da probatarako epe hori. Aurpegiak bai, eta produktu berriak egongo dira gozotegian, Ogiberri okindegi kateak eguneroko ogia eroango du-eta bertara. Gainontzeko zerbitzuek, kafetegiak, banaketak-eta, orain arteko berak izaten jarraituko dute. Aste hauetan, batera ibiliko dira Mariangeles Muruamendiaraz eta Nerea Trompeta bezeroak ezagutzen, enkarguak jasotzen edo gustukoenak diren gozoak zein diren ikasten.

Debagoienean Ogiberriren lehen denda izango da Arrasatekoa, baina Gipuzkoan 130 saltokitik gora dauzkate. Orain dela 70 urte zabaldu zuten lehen Okindegia Amezketan (Gipuzkoa) eta dagoeneko probintzia osoan dauzkate zabalik saltokiak zein lantegiak. Gaur egun 150 lagunek egiten dute lan Ogiberrin. Orokorrean ogigintza egiten dute, baina gozogintza lantegi bat ere badaukate. Hala ere, Muruamendiarazen kasuan, gozoek eta pastelak orain arteko berak izango dira, Zubillagatik ekarriko dituzte-eta. Han dago Muruamendiarazko lantegia, eta, hain zuzen ere, lanean jarraituko dute han bost langileek.

**GAZTE BULEGOA**

# Martxora bitarteko ikastaro berriak

Dantza afrikarrak, bideogintza eta txalaparta eskolak antolatu dituzte

**J. B.** > ARRASATE

Hiru ikastaro antolatu ditu Gazte Bulegoak urtarriletik martxora bitarterako: dantza afrikarrak, bideogintzaren hastapenak eta txalaparta.

Dantza afrikarrekin hilaren 29an hasiko dira, eguenetan izango dira saioak eta Magdalena Milano irakasleak emango ditu eskolak. Bideogintza eskolez Amaia Labaien arduratuko da eta eguaztenetan izango dira saioak, 28tik hasita. Eta txalaparta egubakoitz eta zapatuetan, otsailean, Ttakun txalaparta taldearekin. Izena berandu baino lehen emateko eskatzen dute, plaza mugatuak direlako. Informazio gehiago, gaztebulegoa@arrasate.mondragon. net helbidera idatzita edo 943 25

**ODOL EMAILEAK**

# Odol mota bereziak eskatu dituzte

Bereziki bi odol mota zehatz behar dira: A- eta O- motatakoak

**J.B.** > ARRASATE

Deialdi berezia da egunotan egiten dutena, eta datozen hiru asteetan eman ahalko da odola osasun etxean.

Hain zuzen, Arabako odol emaileen elkartetik oraingo honetan dei berezia egin dute, odol mota zehatz biren beharra daukate-eta.

Eta zehazki behar dituzte O- eta A- motatakoak. Ez ei da larri dabiltzala, Gabon ostean ohikoa izaten da-eta mota horietan urriago ibiltzea, baina deialdi berezia egiten dute, hala ere.

**EGUNAK ETA ORDUAK**

Osasun etxean ibiliko dira odola ateratzen bihar eta hilaren 20an, 21ean, 28an eta 29an. Ordutegiari dagokionez, arratsaldez egongo dira: 16:30etik 20:00etara.

**HIRIGINTZA** > IRISGARRITASUNA

# Aldapa eta eskailerak saihesteko lau igogailu jarri nahi dituzte Bolun

Boluko auzotarren irisgarritasuna bermatu nahi du Udalak igogailuokin

Lau gunetan jarriko dituzte, modu estrategikoan, auzoko kaleak lotuz

Proiektuak ia 1,2 milioi euroko aurrekontua du eta auzokoen bizi kalitatea hobetuko du

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bolu auzoan dauden irisgarritasun arazoei irtenbidea emateko lau igogailu jartzeko asmoa du Udalak. Dagoeneko irisgarritasun azterketa eginda dago eta baita proiektua ere –Bergarako Zetabi Arkitektura Bulegoak egin ditu–. Lanon aurrekontua 1.166.006 eurokoa da eta Udalaren asmoa da Espainiako Gobernuak aurreikusitako krisiari aurre egiteko fondotik iritsiko den dirulaguntzarekin aurre egitea gastu horri.

**IRISGARRITASUN AZTERKETA**

Zetabi Arkitektura Bulegoak egindako irisgarritasun azterketaren barruan, Bolu auzoko –Koldo Eleizalde, Bolu, Aranerreka eta Iraburu kaleak– atari bakoitzaren irisgarritasuna aztertu dute eta atariotara iristeko zailtasuna hiru mailatan banatu dute, bertara iristeko dagoen maldaren eta maila kopuruaren arabera: baxua (%8ko malda eta 10 maila, gehienez), ertaina (%10eko malda eta 30 maila, gehienez) eta altua (%10eko malda eta 30 eskailera, gehienez).

Gaur egun Bolun daude 82 atari eta 601 etxebizitza eta atariotara iristeko zailtasuna kontuan hartuz gero, honela banatzen ditu azterketak: zailtasun baxua dute 31 atarik (222 etxebizitza); ertaina, 40 atarik (278 etxebizitza) eta altua, 18 atarik (101 etxebizitza).

Aurreikusten diren igogailu publikoak jarriz gero, nabarmen jaitsiko litzateke gora eta behera zailtasuna: baxua izango lukete 67 atarik, ertaina 20k eta altua bik baino ez.

**BIZI KALITATEA HOBETU**

Lau igogailu aurreikusten dira auzoan barrena eta igogailuok modu estrategikoan kokatuko lirateke, auzoko kaleak bata bestearekin lotuz. Izan ere, proiektuak garrantzi handia eman dio ahalik eta auzotar gehienen irisgarritasuna bermatzeari. Azken batean, proiektuaren helburua Boluko auzotarren bizi kalitatea hobetzea delako.

Bestalde, igogailuen aukerari egokiena iritzi diote batetik, auzotar kopuru handienari zerbitzu emateko aukera eskaintzen dutelako. Bestetik, oztopo arkitektonikoak kentzen ibili beharrik ere ez dagoelako, ibilbideak murrizteko.

Igogailuak kokatzeko orduan irizpide urbanistikopaisajistikoak ere hartu dituzte kontuan. Hain justu, gaur egungo eustorma eta topografiarekin ahalik eta emaitzarik bateratuena lortu nahi izan dute. Bestetik, igogailuen alboan eskailera publikoak izateari ere garrantzia eman diote, oinezkoek hainbat ibilbide aukera izan ditzaten.

**LAU IGOGAILU**

Lau igogailuak honako lekuetan aurreikusten ditu proiektuak: lehenengoa, Santa Ana parkean (A); bigarrena, errepide nagusitik Koldo Eleizalde kalera igotzeko eskaileraren alboan (B); hirugarrena, Koldo Eleizalde kalea eta Iraburu kaleen artean (C), eta laugarrena, pilotalekua eta Bolu kalearen goiko aldearen artean (D).

Igogailuok eraikitzeko lanak aldi berean egiteko egon daitezkeen arazoak kontuan




**> A ETA D IGOGAILUAK** Santa Ana parke amaieran dauden eskaileren ondoan jarriko dute A igogailua eta erdigunea lotuko du Bolu kalearekin, bien arteko malda handia gaindituz. Bolu kalera igota, Bearten egoitzara eta Boluko goiko etxeetara joateko D igogailua hartu ahal izango da.




**> B IGOGAILUA** Errepide nagusia Koldo Eleizalderekin lotzen du. Bi pausotan banatzen du igo beharreko tartea: lehen geldiunean Koldo Eleizalde 1-3 atariak lotuko ditu; eta bigarrenean, Koldo Eleizaldeko gainerako atariak.




**> C IGOGAILUA** Koldo Eleizalde kalea Iraburu kalearekin lotzen du. Hiru pausotan lotzen ditu bi kaleok. Lur mugimendu handiena eskatzen duen igogailua da eta igogailua kokatuko den gunean plazatxo bat egitea aurreikusten da.

## Segurtasuna, pribatutasuna eta estetika aintzat hartuko dituzten igogailuak

Jarriko dituzten igogailuen ezaugarriei dagokienez, zortzi lagunendako –gehienezko pisua 630 kilo– edukiera izango dute. Bi sarrera izango dituzte eta 1 m/s-ko abiaduran joango dira. Bestalde, igogailuaren arabera bi edo hiru geldialdi egingo dituzte.

Ezaugarri estetikoei dagokienez, egur gris kolorekoak izango dira eta bi alde beirazkoak izango dituzte. Modu horretan, kanpokoa ikusteko aukera emateaz gain, erabiltzaileen segurtasuna ere hartu dute aintzat –klaustrofobiaren aurka, besteak beste–. Beste bi aldeak itxiak izango dira, igogailuen mekanismoak ezkutatzeaz gain, etxebizitzen pribatutasuna bermatu ahal izateko.

## oharrak

ONA TXARTELA
**> ONA txartela atera daiteke Udal liburutegian**
Oraindik ere ONA txartela egin daiteke liburutegian. Bestalde, duela hilabete txartela eskatu zutenak dagoeneko pasa daitezke jasotzera liburutegiko ordutegian.

ZOZKETA
**> Angiozarko Eskola Txikiko zenbaki saritua atera da**
Zenbakia da 8.920. Saria eskuratzeko jarri harremanetan Guraso Elkartearekin, 943 76 16 19 zenbakian.

HAUTESKUNDEAK 09
**> Azken eguna erroldan erreklamazioak aurkezteko**
Gaur bukatuko da martxoaren 1eko hauteskundeetarako hautesle-errolda berrikusteko epea. Interesatuak idazkaritzatik pasa daitezke errolda aztertu eta erreklamazioak aurkezteko.

ZOZKETA
**> Mariaren Lagundiako zozketako zenbakia atera da**
Ikas bidaiarako zozketako zenbaki saritua da 1.815. Irabazleak bi lagunendako bazkaria izango du Zumelagan.

UDAL EUSKALTEGIA
**> Matrikulazio epea zabalik dago Udal euskaltegian**
Udal euskaltegiaren bulego ordutegiahonako hau da: 08:00-12:30 eta 14:30-18:00. Informazio gehiagorako deitu 943 76 44 53 zenbakira.

ZOZKETA
**> Irudi erloju dendako zenbaki saritua atera da**
Irudi erloju dendak Gabonetan bezeroen artean egin zuen zozketaren zenbaki saritua da 2.416. Irabazlea dendatik pasa dadila saria jasotzera lehenbailehen.

ZOZKETA
**> BTLS kirol elkartearen zenbaki saritua atera da**
Kirol elkarte horren Gabonetako saskia jaso du 1.220 zenbakiak.

ZOZKETA
**> Bedelkarrek eman ditu jakitera zenbaki sarituak**
Gabonetako zozketako zenbaki sarituak dira: 4.611 (mila euro); 9.904 eta 68.662 (500 euro); 36.353, 46.487, 71.236 eta 88.357 (250 euro).

KINTO AFARIA
**> 1956an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**
Urtarrilaren 31n egingo dute, Zabala jatetxean. Izenematea da Zabala jatetxean (943 76 42 57), hilaren 26a baino lehen. Afari egunean hitzordua egin

**EUSKARA** > KALE ERABILERAREN NEURKETA

# Helduetan pausoz pausoko igoera aipagarria, euskararen erabileran

1983an neurtu zen lehen aldiz Bergaran kaleko erabilera; eta 1993tik gaur arte urtero egin dute

2007ko eta 2008ko emaitzak 2006koak baino eskasagoak izan diren arren, emaitza ona izan da

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Udaleko Euskara batzordeak kaleratu du 2008ko euskararen kaleko erabileraren neurketa jasotzen duen txostena, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan. Batzordekoek txostenenean honako hau adierazi dute: "Askotan euskararen egoera zein den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten zelan erantzun, eta sarri erantzuna oso modu subjektiboan ematen dugu".

Horregatik, azaldu dute gero eta garrantzitsuagoa dela euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen duten datuak izatea. Horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena, Euskara batzordearen ustez: kaleko euskararen erabilera, hain zuzen ere. Euskara Batzordeak kaleratu duen txostenean kalean behaketa zuzenaren bidez lortutako datuak eskaintzen ditu.

**NEURKETAREN EZAUGARRIAK**

1983an neurtu zen lehenengo aldiz Bergaran euskararen kaleko erabilera, eta 1993az geroztik urtero egin izan da. Eta urtez urteko datuok konparagarriak izan daitezen, beti metodologia, egun, ordu, eta neurketa-gune berdintsuak hartu dituzte.

Aurten ere, lau gune aukeratu dituzte eta bakoitzean ibilbide bat zehaztu dute. Kalerik jendetsuenak biltzen dituzten ibilbideak, hain zuzen ere: lehena, Fraiskozuri-Usondo-Matxiategi; bigarrena, Espoloia-Bidekurutzeta-Barrenkalea-Irala; hirugarrena, San Antonio-Zubiaurre-Labegaraieta; eta laugarrena, Bolu-Masterreka-Kruz Gallastegi.

Lau gune horietan nabarmentzekoa da hirugarren ibilbidean euskararen erabilera, beste hiru guneetan baino nabarmen baxuagoa dela. Aztertutako urte guztietan gune horretan izan dira emaitzarik apalenak.

**BALORAZIO OROKORRA**

Alde positiboan, bereziki, helduetan gertatzen dabilen pausoz pausoko igoera aipatuko behar da: 2007ko eta 2008ko emaitzak 2006koa baino baxuagoak izan diren arren, emaitza ona izan da, bataz bestekoarekin konparatuta. Badirudi, gainera, igoera hori antzematen hasi dela haurren presentziarik gabeko kasuetan ere.

Modu berean, nahiz eta 2006an eta 2007an salbuespenak izan, alde positiboan egileei nabarmentzekoa iruditu zaie neska gazteek (%15-24 urte bitartekoek) duten erabilera-maila altua: 2008an %70 baino altuagoa izan zen.

Nabarmentzeko beste puntu batzuen artean, berriz, honako hauek aipatu dituzte Euskara Batzordekoek: haurren presentziaks beste adin-taldeen erabileran duen eragina; hau da, haurrekin dihardutenean beste adin-tartekoen erabilera nabarmen igotzen da; eta urte batzuetan umeen arteko erabilera-mailara iritsi eta gainditu egin dute.

2002tik 2006ra bitarteko neurketetan, esaterako, umeen erabileran goranzko

| | |
|---|---|
| 1983 | %34 |
| 1988 | %40 |
| 1989 | %38,1 |
| 1991 | %44,4 |
| 1994 | 38,1 |
| 1995 | %37 |
| 1996 | %37,3 |

**POLITIKA**

## 'Kanto'-ren aldeko herri ekimena martxan

'Kanto' 2007ko urrian kalean egon beharko litzatekeela jakinarazi dute

**J.Z.** > BERGARA

Herritar talde batek, Luis Mari Azkargorta Kanto presoaren aldeko Kanto Etxera izeneko Herri Ekimena jarri nahi du martxan. Talde honen hurrengo erronka "aldarrikapen honen aldeko herri ekimen sendo eta anitzena egituratzea izango litzateke", adierazi digute bultzatzaileek.

**HERRITAR GUZTIEN LAGUNTZA**

Kanto 1988an atxilotu zuten, eta 15 urte preso egon ondoren, zigorraren hiru laurdenak beteta, aske utzi zuten 2003ko urtarrilean, baina urte horretako abenduan berriro espetxeratu zuten bere zigor osoa bete arazteko. "2007ko urrian kalean egon beharko litzateke. Bidegabekeria honi amaiera emateko, bergarar guztien



JOSE ANGEL MIKEO

## Mikel Laboa eta Angiozarko gaztetxoak 1976an Arizkunen

Goiko argazki zaharra Arizkunen, Baztanen, 1976ko uztailean egindakoa da. Oporretara joaten ziren urtero bertara Angiozarko 50 gazte inguru. Urrasun auzoan, Amaiurrera bidean, egoten ziren. Bertako pilotalekuan zonaldeko dantzak ikasi eta palan jokatzen zuten; bertan, baserri etxe bat alokatzen zuten eta han pasatzen zuten uztaila osoa. Argazkian, gazte koadrila Mikel Laboarekin batera agertzen da; Laboa Arizkunen oporretan zegoen-eta. Argazkian, ezkerretik eskumara eta atzeko ilaratik aurrekora, ondorengoak dira bertan azaltzen direnak: ezezaguna, Marilu Belastegi, Idoia Arantzabal, Mila Elortza, Mikel Arantzabal, Jesus Maria Intza, Mikel Laboa, ezezaguna. Hurrengo ilaran: ezezaguna, Mila Eguren (makurtuta), Mertxe Garai, Amaia Elortza, Izaskun Eguren, Gorka Elortza, Jose Angel Arriaran, Jose Maria Alberdi, ezezaguna, ezezaguna eta Jose Angel Mikeo. Jarrita agertzen direnak: Igone Elortza, Garbiñe Elortza, Arantzazu Arantzabal, Karlos Gallastegi, Jose Luis Retolaza, Jabier Garitano, Jabier Mikeo, Rita Garitano eta Ana Jesus Loidi.

> IKASTAROA

### Dementzia duten pertsonendako ikastaroak martxan

Nagusi Izanez Bizi Elkarteak (NIBE) hirugarren adineko pertsonei bideratutako ekimenak antolatzen dihardu. Horrela, hurrengo hilabetetan Debagoienean berria izango den esperientzia bat abian jarriko dute: dementzia duten pertsonendako ikastaroak, hain zuzen ere.

Elkartetik jakinarazi dute hasiak direla senideekin elkarrizketak izaten. Interesatuek honako telefo-

> JAIAK

### San Paulo jaiak egubakoitzean hasiko dira Uberan

Datorren egubakoitzean hasi eta astelehena bitartean San Paulo jaiak ospatuko dituzte Ubera auzoan. Egubakoitzean bakailaojana egongo da, soinujoleek lagunduta, Jaolatza elkartean; eta zapatuan patata-tortila txapelketa eta umeendako jolasak, besteak beste. Domekan, berriz, meza nagusia eta herri kirolak. Astelehenean ere

**Corrado Masacci** > Txotxongilo egilea

# “Txotxongilo bakoitza birritan erabiltzen dut asko jota, ez dut birziklatzeko ohiturarik”

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Corrado Masaccik txotxongilo erakusketa zabalduko du bihar kultura etxeko erakusketa gelan, otsailaren 15era arte. Txotxongiloen historiaren laburpena egiteko asmoa duela esan digu. Oñatiar guztiak gonbidatu gura ditu erakusketara.**

Ze ikusi ahalko dugu txotxongilo erakusketan?

Txontxongiloen mundu bat delako erakusketan txotxongiloen historiaren laburpena egiten dut; txotxongiloei omenaldia.

Herrialde askotariko txotxongiloak jarriko ditut; besteak beste, Indiatik, Italiatik eta Afrikatik ekarritako txotxongiloak. Gainera, teknika ezberdinarekin mugitzen direnak eta baita nik egindako txotxongiloak ere erakutsiko ditut.

Erakusketa herritarrendako egongo da zabalik, baina eskoletako umeek ere parte hartu ahal izango dute.

Bai, hain zuzen ere, horixe da nik egiten ditudan erakusketen ezaugarri nagusia: 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako erakusketak dira. Kultura etxera etorriko dira eta bisita gidatua egingo dut eurekin. Bukatzeko, antzerki laburrak egingo ditut, txotxongiloak dantzan jartzeko.

Bestalde, herritarrendako zabalik egongo da astelehenetik domekara arte, 18:30etik 20:30era.

30 urte daramatzazu txotxongiloen alorrean. Nola hasi zinen zeregin horretan?

Ni jaio nintzen herrialdean txotxongiloek tradizio handia dute; hortaz, txikitatik ikusi eta gustuko ditut.

Arte Ederretako ikasketak bukatu ondoren, txotxongiloekin lanean hastea erabaki nuen, nire ideiak jendeari zabaltzeko asmoz. Gainera, Italian txotxongiloen gaineko erakusketa erraldoia egiten dute, eta zuzendariak animatuta hasi nintzen txotxongiloekin. Punta-puntako maisuak eduki nituen.

Gaur egun, erakusketak antolatzetik bizi zara.

18 urte daramatzat erakusketak antolatzen: hauxe da nire ogibidea aspaldian.

Txotxongilo berriak egiteko ze prozesu jarraitzen duzu?

Lehen-lehenik, ideia bat hartzen dut, eta horri buruzko gaineko zirriborroa egiten dut. Ondoren, txotxongiloak izango dituen mugimenduak zehazten ditut, eta txotxongiloa egiten hasten naiz. Aurpegirako eta bururako papera erabiltzen dut, eta gorputzerako egurra.

Urte hauetan batu dituzun txotxongiloak behin baino gehiagotan erabiltzen dituzu?

Oso gutxitan. Egia esan, oso zaila da txotxongilo bakoitza bakarra da-eta. Gainera, egoera eta gai zehatz baten gainean egindakoak dira.



Corrado Massaci txotxongiloekin kultura etxeko erakusketa gelan. JOSETXO ARANTZABAL

**“18 urte daramatzat erakusketak antolatzen: hori da nire ogibidea”**

**“Txotxongiloaren aurpegirako papera erabiltzen dut, eta gorputzerako egurra”**

**“Tolosan txotxongiloen gaineko museo bat egingo dute; mesedegarria izango da guretako”**

Txotxongiloak ez ditut birziklatzen, eta ez ditut inoiz saldu. Dena den, batzuetan, baina oso gutxitan, txotxongilo bera erakusketa baten baino gehiagotan erabiltzen dut. Guztira, 150 bat txotxongilo ditut.

Txotxongiloek duten ezaugarrietako bat mugimendua da. Baina guztiak modu berean mugitzen dira?

Egileak gura badu, mugimendu ezberdinak izan ditzakete. Txotxongiloa egiten hasten naizenean, izango dituen mugimenduak zehazten ahalegintzen naiz. Ahal dudala, txotxongilo bakoitzarekin mugimendu ezberdinak egiten ditut.

Asko praktikatu behar da txotxongiloak mugitzeko?

Musika instrumentu bat jotzen ikastea bezala da. Hasieran ordu asko sartu behar dira, baina neurria hartu ondoren oso erraza da. Pazientzia beharrezkoa da ogibide horretan.

Tolosan egiten dute urtero txotxongiloen gaineko erakusketa. Nolako harrera duzue Euskal Herrian?

Oso ona. Erakutsi dugu txotxongiloak ez direla umeen-

**DEIALDI PUBLIKOA** > UDALTZAINAK

# Udaltzain lanpostuetarako eskaerak egiteko epea otsailaren 2ra arte izango da

Deialdia Estatuko Aldizkarian kaleratu zuten urtarrilaren 13an, eta sei udaltzain lanpostu aterako dituzte lehiaketara

M.B. > OÑATI

Udalak betetzeko asmoa duen sei udaltzain lanpostuetarako izenemate epea otsailaren 2an bukatuko da. Deialdia abenduaren 17an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta urtarrilaren 13an Estatuko Aldizkarian. Eskaerak udal bulegoetan aurkez daitezke.

**BTP GIDABAIMENA**

Funtzionario izaera duten lanpostuetara aurkeztu ahal izateko bete beharreko baldintzak hauek dira: 18 eta 32 urte artekoa izatea; eskola graduatua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea izatea; eta gizonezkoek 1,65 metroko garaiera izan beharko dute gutxienez, eta emakumeek 1,60 metro. Hautagaiek, bestalde, B motako gidabaimena edo baliokidea eduki eta ibilgailu bereziak gidatzeko BTP baimena egiaztatu beharko dute.

**BOST PROBA**

Hautagairik aproposena aukeratzeko bost azterketa egingo dituzte. Lehena ariketa teorikoa izango da; bigarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez duten hautagaiek euskarazko azterketa egin beharko dute. Hirugarrena gaitasun fisikoa neurtzeko azterketa izango da. Eta ariketa praktikoa eta jarrera proba izango dira laugarren eta bosgarren probak.

Azterketa guztiak bukatuta, lehiaketa fasea egingo dute: hain zuzen ere, norberak duen esperientzia baloratuko dute.

**12 HILABETEKO PRAKTIKAK**

Lanpostua eskuratzen dutenek prestakuntza ikastaroa egingo dute, eta ondoren




GOIENKARIA

# Dirua batzeko egutegia ETEOkoek

ETEOko Enpresa Zientzietako ikasleek egutegi berezia egin dute, ikasbidaiarako dirua batzeko asmoz. Elgoibarko Leiran estudioetan egin zituzten argazkiak, eta Arrasateko Virginia ile-apaindegiko kideek orraztu zituzten berorrek.

Guztira, 22 ikaslek hartu zuten parte, eta argazkietan arropa gutxirekin agertzen dira. Egutegia salgai jarri dute Oñatiko tabernetan, Arrasateko Virginia ile-apaindegian eta ETEOn bertan, hain zuzen ere.



Eguenean Udaleko zerbitzuetako bi langile izan ziren zuhaitzetan seinaleak jartzen, bi herritarrekin batera. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > INGURUMENA

# Iturriondoko zuhaitzak izendatzen ibili dira

Parkeko 63 zuhaitz eta zuhaixka espezie izendatu zituzten eguenean Udal bina langilek eta herritarrek; seinaleak izen ofizialean eta euskaraz daude

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Iturriondo parkeko lanei dagoeneko azken ukituak ematea baino ez zaie falta. Joan den eguenean hango zuhaitzak eta zuhaixkak izendatzen ibili ziren Udaleko zerbitzuetako bi langile. Horiekin batera herritar bi izan ziren, zuhaitz guztiak identifikatzen eta dagozkien izenak alboan jartzen. Izen ofiziala eta euskarazko izena daukan seinale bana jarri zieten. Ingurumen zinegotzi Joxe Anjel Antxiak azaldu duenez, 60 zuhaitz espezie baino gehiago daude landatuta gaur egun ingurune horretan: "Guztira, 63 mota topa ditzakegu Iturriondon eta horietan seinaleak jartzea egoki ikusi dugu".

Arkarazo auzora bidean eskuma aldera dagoen parkea da Iturriondo. 2006ko abenduan esandako berdegune hori txukuntzeko hitzarmena sinatu zuen Udalak Kutxarekin eta Basoa fundazioarekin. Aurreikusitako lanen artean, besteak beste, zuhaitzak eta zuhaixkak izendatzearena dago.

**INAUGURAZIOA, UDABERRIAN**

Ingurune horretako inaugurazioa udaberri partean egiteko asmoa dute. Antxiaren kalkuluen arabera, "apirilean edo maiatzean egin nahi dugu. Asmoa da aditu batek zuhaitz

> ARETXABALETA

### Gaurko plenoan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaz jardungo dute

Aretxabaletako udalbatzak plenoa egingo du gaur arratsaldean. Hiru gai landuko dituzte han. Batetik, udaletxeko langileen lan hitzarmena onartzea espero dute. Bestetik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ildo berriak aurkeztuko dituzte. Orain dela lau urte egindako plana berrikusi eta etorkizunera begira, plan estrategiko berria diseinatu dute. Horren gaineko azalpenak emango dituzte han. Azkenik, Mitarte kaleko saneamendu eta ur-hodiak berritzeko proiektuaz ere eztabaidatuko dute. Osoko bilkura

> ARETXABALETA

### 1979ko kintoek afaria egingo dute zapatuan Basabe jatetxean

1979 urtean jaiotako aretxabaletarrek kintoen afaria antolatu dute lehen aldiz. Orain arte ez dute horrelakorik egiteko tradiziorik izan eta beraiei ere egiteko ordua iritsi zaiela erabaki dute. Hortaz, zapatu gauean, urtarrilak 24, bilduko dira mahai baten inguruan.

Oraindik zabalik dago izena emateko epea. Interesa dutenek bihar arte, hilak 20, izango dute horretan apuntatzeko aukera, Orli tabernan. Basabe jatetxera afaltzera joan aurretik, poteoa egiteko asmoa dutela jakinarazi digute.

> ARETXABALETA

### Zine klubak 'Al Otro lado' filma botako du eguenean Arkupen

Arkupeko kultura egitarauaren barruan, zine kluba antolatu dute eguenerako, urtarrilak 22. Hamahiru urtetik gorakoek Al otro lado filma ikusi ahal izango dute egun horretan.

Fatih Akinek zuzendutako proiektuak 121 minutu irauten du. 2007 urtean, Cannes lehiaketan gidoi onena izateagatik saria jaso zuen film horrek. Nurse Köse, Hanna Schygulla, Tuncel Kurtiz, Nurgül Yesilçay eta Patrycia Ziolkowska dira protagonistak.

Emanaldia 19:30ean hasiko da eta horretarako sarrerak

> ESKORIATZA

### 'Guk Euskal Nazioa Independentzia' izeneko zozketako zenbaki saritua 8.951 izan da

Guk Euskal Nazioa Independentzia zozketako zenbaki saridunak atera zituzten hilaren 5ean. Irabazlea 8.951 zenbakia izan da. Horra hor sari batzuk: Soran etxean afaria, mendiko bizikleta, Ternua markako jaka eta emakumendako zein gizonendako prakak. Hilabete baten, sariduna agertu ezean, 3.680 eta 4.334 daude on-

> ESKORIATZA

### Eskoriatzako industrialdeaz eta aurrekontuetaz jardungo du udalbatzak gaurko osoko bilkuran

Plenoa dago gaur, astelehena, 18:30ean. Eskoriatzako industrialdearen ezohiko batzar orokorra izango da. Administrazio Kontseiluan kontseilariak kargua uztea eta berriak izendatuko dira. Ondoren, ezohiko plenoa egingo dute: aurrekontuetaz eta EB-Berdeak taldeak Palestinako herriaren aurkako erasoak gaitzesteko aurkeztu duen mozioaz jardungo dute, besteak bes-

**ESKORIATZA**> ERRETIRATUAK

## Olazarrek batzar nagusia egingo du egubakoitzean

Erretiratuen elkartearen bilkura herriko kultur etxeko aretoan izango da, 17:30ean

**M.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak ezohiko batzar nagusia deitu du aste honetarako. Egubakoitzerako, urtarrilak 23, egin du hitzordua, hain zuzen ere.

Batzarra herriko kultura etxeko aretoan izango da eta 17:30ean hasiko da. Erretiratuen elkartetik, horren harira, bazkide guztiendako bilkura irekia dela eta, horretan parte hartzeko gonbitea egin dute.

Bi gai nagusi landuko dituzte batzar horretan. Alde batetik, joan den urteko kontuen balantzea egingo dute. Hala, elkarteko zuzendaritzak horren gaineko datuak eskainiko dizkie bazkideei. Sail bakoitzean izandako gastuak eta diru sarreren berri izango dute.

**BATZORDEKIDE BERRIAK**

Horretaz aparte, elkartearen baitan emango diren aldaketak ezagutaraziko dituzte. Hemendik aurrera elkarteak izango dituen batzordekide berriak aurkeztuko dituzte. Batzarra amaitzean, txokolatea egongo da horretan parte



Olazar elkarteko presidente Pedro Mari Armendariz. MIRIAN BITERI



Elgetako Forjanor tailerra Sidenor taldearen barruan aurkitzen da. JOSETXO ARANTZABAL

**ELGETA** > LANA

# Sidenor erregulazio espedientea negoziatzen

ELA sindikatuak suspentsio-espedientearen alde egin du langileak txandaka langabeziara joateko

**TXOMIN MADINA** > ELGETA

Elgetako Forjanor lantegiaren jabe den Sidenor enpresak planteatutako erregulazio-espedientearen negoziazioan bada berrikuntzarik. Asteon egin dute azken bilera eta sindikatuak ez daude gustura bertan jasotakoarekin.

ELA sindikatutik esan dutenez, dagoeneko aldi baterako 200 langile kaleratu dituzte Sidenorreko plantetan, eta orain enpresak beste 100 kaleratze planteatzen ditu. ELAtik adierazi dute eurak ez daudela prest negoziatzen jarraitzeko jendea kalera doan bitartean, eta sindikatuak suspentsio-espedientea proposatu du; hau da, langileak langabeziara bidaltzea txandaka.

Asmoa litzateke ahalik eta langile gehien sartzea suspentsio-espediente horretan, langile bakoitzarengan egoerak eragin ahalik eta txikiena izan dezan.

Sidenorreko lantegi guztietarako batera ari dira erregulazio-espedientea lantzen, eta beraz, momentuz, ELAtik ezin izan digute zehaztu Elgetako Forjanor lantegian zenbat languni eragingo liokeen neurriak. ELA sindikatutik gaineratu dute gaur egun arazoak egon badaitezke ere, duela hiruzpalau hilabetera arte enpresak "sekulako" irabaziak izan dituela.

**LANGILEAK KEZKATUTA**

Sidenor enpresak bost planta ditu; Basaurin, Gasteizen, Reinosan, Atarrabian eta Elgetan.

Zuzendaritza sindikatuekin negoziatu nahian dabilen erregulazio-espedienteak bost planta horietako langileengan izango luke eragina. Ez digu oraindik inork konfirmatu

**LEINTZ GATZAGA** > GIZARTE ZERBITZUAK

# 302.380 euroko aurrekontua onartu du Bideberri Mankomunitateak 2009rako

Antzuolak, Elgetak eta Leintz Gatzagak osatutako Mankomunitatearen aurrekontua bikoiztu egin dute

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako udalek sortutako Bideberri Mankomunitateak dagoeneko onartu du 2009ko aurrekontua: 302.380 euro. Abenduan egindako gobernu batzordean aurkeztu zituzten diru kontuak eta ikusgai daude, alegazioak aurkezteko. Inolako alegaziorik ez badago, behin betiko onartuko dituzte.

**AURREKONTUA IA BIKOIZTU**

Gizarte zerbitzuak hobeto kudeatzeko sortu zuten Bideberri Mankomunitatea Debagoieneko hiru herri txikienek, eta gizarte laguntzaile bi dabiltza lanean. Gatzagara martitzen goizetan Ainara Gabilondo etortzen da.

2009ko aurrekontua ia bikoiztu egin dute –iazkoa 164.502 euro– eta hainbat berrikuntza dauzkate aurreikusita: berdintasun plana egitea eta Auzolan deritzon egitasmoa abian jartzea. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako egitasmoa da Auzolan, eta hainbat arrazoirengatik lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten herritarrei bideratuta dago. Bideberrik abian jartzeko asmoa izan arren, Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso arte itxarongo dute –uda–.

Bestalde, 2008an abian jarritako hainbat proiekturekin aurrera egingo dute; droga mendekotasun planarekin, esaterako. Bost urterako plana da eta aurten Debagoienean argitaratuko duten gurasoendako aldizkarian hartuko du parte

**ARAMAIO** > KIROLA

# Eski irteera egingo dute otsailaren 14 eta 15eko aste bukaeran

Otsailaren 4ra arte eman daiteke izena; Orixol mendi elkarteko bazkideek 110 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek 120 euro

**M.B.** > ARAMAIO

Aramaioko Orixol mendi elkarteak eski irteera antolatu du otsailaren 14 eta 15eko aste bukaerarako. Oraindik zehazteke dago nora joan. Izena ematen duten guztien artean erabakiko dute. Pirinioetako Luz Ardiden, La Mongie edo Cauterets eski estazioak izango dituzte aukeratzeko, besteak beste.

Otsailaren 4ra arte eman daiteke izena. Mendi elkarteko bazkideek 110 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnak, berriz, 120.

**PREZIOAREN BARNE ETA KANPO**

Horra hor prezio horretan sartzen dena: autobusa, lo egiteko tokia, zapatuko afaria, domekako gosaria eta eskiatu ahal izateko bi egunetako forfait-a. Mendi elkartetik jakinarazi dute zapatuko eta domekako bazkaria norberaren kontura joango dela, eskiatzeko materiala ez dela prezioan sartzen eta eski estazioan bertan materiala alokatzeko aukera egongo dela.

Eskiatzaileak otsailaren 14an irtengo dira, 04:30ean,



Orixol mendi elkarteak eski irteera antolatu du. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > DANTZA

# Martitzenean hasiko dira Aratusteetarako entseguak

Nesken taldean dantza egin behar dutenek 10:30ean dute hitzordua eskolan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Ohitura da Antzuolan Aratuste-domekan mozorro desfilea eta dantza saioa egitea. Aurten ere, otsailaren 22an, domeka, aterako dira kalera dantzara Oinarin dantza taldeko kideak eta jaian parte hartu nahi duten herritarrak.

Aratusteetako ikuskizuna gertatzeko entseguak egingo dituzte aurretik. Lehenengoa martitzenean, urtarrilaren 20a, izango da, 19:30ean Herri Eskolan. Oinarinekoek dei egiten diete Aratusteetan eurekin dantza egin nahi duten herritarrei eskolara azaltzeko.

**MUTILEK, SORGIN-DANTZA**

Lehenengo hitzordu horretan erabakiko dute aurten zein dantza egingo duten. Izan ere, mutilek sorgin-dantza egiten dute urtero, baina neskak saiatzen dira aldaketak egiten euren saioan, ahal dela urtetik urtera gauza berriak erakusteko. Hortaz, martitzenean hasiko dira ikuskizuna gertatzen nesken taldeko dantzariak.

Dantza saioa plazan eskainiko badute ere, aurretik, kalerik kale ibiliko dira dantzariak herrian, Aratustedomekan Antzuolan protagonista diren hartza, tximinoa eta hezlea lagun dituztela.

Gero, Oinarinekoek eta entseguetara animatzen diren antzuolarrek jardungo dute dantzan.

Domeka horretan plazan



**> FUTBOLA**
UDAk 2-0 irabazi Beriori eta Aloña 1-2 nagusitu zitzaion Idiazabali; Mondrak berdindu **> 22**



**> SASKIBALOIA**
MUk denboraldiko bigarren partidua irabazi zuen zapatuan, Urdanetaren kontra **> 25**



**> ELKARRIZKETA**
Azken urteetan Arrasaten jokatu ondoren, Gorka Alartzia Iraurgi taldean dabil orain **> 27**

**EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA** > TXOMIN URIARTE HAUTATU DUTE PRESIDENTE ELGETAN EGINDAKO BATZARREAN

# "Elkarteekiko harremana estutu nahi dugu berriz ere"

**ALDEA**
125 boto lortu ditu Txomin Uriartek; 57 Victor Ruiz de Gaunak

**KIDEAK**
Aurreko bi presidenteak daude berriaren lantaldean

**JARRAIPENA**
Aurrekoek ondo egindakoak nabarmendu ditu, nahiz akatsak onartu

**JULEN IRIONDO** > ELGETA

Espaloia aretoa euskal mendizaleen bilgune izan zen zapatuan beste behin ere. Bertan egin zuten Txomin Uriarte presidente izendatu zuen Euskal Mendizale Federazioaren batzarra.

Bizkor eta aparteko gorabeherarik gabe joan zen Elgetako ekitaldia. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako klubak, mendizaleak eta teknikariak zeuden bertan parte hartzera deituak. 90 ordezkari guztira, klubak federatu kopuruaren arabera boto bat baino gehiago emateko eskubidearekin. Ordubetean eginak zituzten lanak.

**ILUSIO HANDIAREKIN**

Saioa hasi eta hitzalditxoa egin zuten hautagai biek, presidente aterako balira jarraituko luketen bidearen berri emanaz. Ondoren egin zuten bozketa, eta dezenteko aldearekin irabazi zuen Txomin Uriartek. 125 boto lortu zituen; 57 bakarrik Victor Ruiz de Gaunak.

Batzarra amaituta oso pozik agertu zen presidente berria: "Ilusio handia neukan lan hau egiteko. Bizitza osoa eman dut mendiaren inguruan, eta orain, erretiroa hartuta, denbora dut kargu honetan jarduteko".

Uriartek "luxuzko taldea" izango du bere inguruan; tartean dira Federazioko aurreko bi presidenteak ere, Arantza Jausoro eta Antxon Bandres. Honela, bere aurrekoek ondo egindako lanarekin jarraitzea da Uriarteren asmoa: "Administrazio arloan ondo ari gara: lizentzien tramitazioa nahikoa bizkor egitea lortu dugu; kontuak ondo daude eta gure aseguruak ere oso ondo funtzionatzen du. Bestetik, euskaldundutako Federazio bat dugu, bi hizkuntzetan jarduten duena. Hirugarren arlo interesgarri bat da lasterketa, txapelketa eta iraupen luzeko ibilaldiena; Aizkorriko maratoiak, adibidez, arrakasta handia du eta horretan ere jarraituko dugu lanean".

**HOBETU BEHARREKOAK**

Baina hobetu beharrekorik ere ikusten du presidente berriak: "Elkarteekiko harremanak, agian, ahaztuta izan ditugu apur bat. Batera lan egin behar dugu, adibidez, gaztetxoen formazioan". Dena den, 30.000 federaturekin, gure mendizaletasunak osasun onarekin jarraitzen ei du.

Eta Federazioa bera ere duela lau urteko hauteskundeen ostean baino indartsuago atera omen da oraingo batzarretik: "Aurreko zuzendaritzak gauza batzuk gaizki ere egin zituen, eta hauteskundeak galdu zituen Alvaro Arregiren Arrasateko taldea gain-gainean izan zuen. Gure zuzendaritza, ordea, kontsensuan oinarritu-

## Everesteko tontorra helburu zuen Tximist espedizio ezagunetik, Euskal Mendizale Federazioaren presidente postura

Aurten beteko dira 35 urte Everesteko tontorra helburu zuen aurreneko euskal espedizioa gauzatu zela. Tximist espedizio ezaguna izan zen, Juan Zelaia enpresa gizon oñatiarraren laguntzarekin egindakoa. Eta hor tartean zen Txomin Uriarte ere. 1974 hartatik ibili da Uriarte Federazioan era bateko edo besteko lanak egiten, eta aurretik beste batzuk ere bazeramatzan mendiari lotuta. Eskarmentu handia du, beraz.

Euskal Mendizale Federazioko presidente kargua eskuratuta, lanean buru belarri hasiko da berehala Gasteizko Manuel Iradier elkarteko kidea. Mendi elkarteen sarea tamaina desberdineko taldeek osatzen dute. Uriarteren esanetan, herrialdeetako federazioek eta hauek koordinatzen dituen Euskal Federazioak lan handia egin dezakete elkarteei irteerak antolatzen laguntzen, prestakuntza eta informazioa ematen, segurtasuna bermatzen, mendi eta bidezidorrak zaintzen... Bestalde, Uriarteren asmoa ere bada Federazioaren bitartez mendizaleek gustuko dituzten jarduerekin goza dezaten lagundu eta bermatzea. Zentzu honetan, eta azken urteetan dezente indartu diren mendi lasterketen harira, zenbait ñabardura egiten ditu presidente berriak. Bere esanetan gutxiengoa dira oraindik lehia helburu duten mendizale gazteak. Hauei laguntzea ondo ikusten du Uriartek, baina hori Federazioak bultzatutako gainerako ekintzetarako oztopo ez izatekotan.

Mendiak arriskuan daudela ere badio Uriartek, eta ekologia balio kultural moduan zabaldu behar dela iraungo badute. Eta kargura iritsi berria izan arren, agintaldiaren amaierara begira ere jarri da Federazioko burua. Bere taldearen asmoa da euren erreleboa hartuko duen talde gazte bat prestatzea, erakundeak XXI. mendeko beharrei erantzun diezaien.



**ILUSIOZ** Pozik heldu dio Txomin Uriartek lan berriari. JULEN IRIONDO

**PREFERENTEA** > BIGARREN ITZULIAREN HASIERA

# 40 metrotik bat, kontraerasoan bestea, bi gol eder eta garaipena

Errenta txikia izan arren, etxekoek ondo eutsi zioten, amaieran bigarrena egin arte

**ARETXABALETA**

**Aretxabaleta** > Unda, Raul, Alain, Ruben, Iturbe, Astola, Imanol (Uribetxebarria, 79. min.), Igartua (Enrique, 88. min.), Garai, Eriko eta Espinosa (Oinatz, 84. min).

**BERIO** > Kortajarena, Olaizola, Arzelus, Oria, Ferrera, Arteaga (De la Fuente, 52. min.), Garmendia (Astudillo, 59. min.), Badiola (Larrea, 80. min.), Pikabea (Alduntzin, 75. min.), Martin eta Martinez.

**Golak** > 1-0: Alain (17. min.). 2-0: Oinatz (90. min).


Alain Aretxabaletako jokalaria Berioko kontrarioz inguratuta; gol ederra egin zuen zelai erditik. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > ARETXABALETA

Egunero ez da egoten zelai erditik sartutako gol bat ikusteko aukera. Zorte horixe izan zuten atzo Ibarra futbol zelaian bildutako zaleek. Partiduko ordu laurdena pasatxo zen, Alainek baloia lapurtu eta erdiko marra baino metro gutxi batzuk aurreragotik jo zuen, atezaina aurreratuta ikusita. Zer nolako gola! Ordura arte nahikoa parekatua zihoan partidua, aukera gehiegi gabe; lehenengo zatian ahalegin fisiko handia egin zuten etxekoek eta partiduan oso sartuta egon ziren uneoro. Aurrenekoan lortutako errenta defendatzea tokatu zitzaien bigarrenean, eta arazo handi barik egin zuten hori. Korner pare bat baino ez zituzten izan kanpokoek, arrisku gabe. Neurketa amaieran azken minutuetan zelairatuak ziren Uribetxeberria eta Oinatzen artean

**PREFERENTEA** > BOLADA ONA

## Kanpoan irabazita, bigarren postuan jarri dira Oñatikoak

**IDIAZABAL**

**J.I.** > BERGARA

2009 urte hasiera zaila zuten oñatiarrek, kanpoan jokatu beharreko bi partidurekin, lehenengo itzuliko azkena Aretxabaletan eta bigarreneko lehenengoa Idiazabalen. Zaila bezain oparoa gertatu da, bada, Aloña Mendirentzat. Biak irabazita sailkapeneko bigarren posturaino egin dute Josu Zubiaren mutilek.

Idiazabaleko partidua ez zen erraza izan. Hasiera kaxkarra egin zuten gorriek, eta lehenengo ordu laurdenean etxekoek izan zuten baloia. Ez zuten, dena den, arrisku gehiegi sortu. Poliki poliki zelai erdiaren jabe egin ziren oñatiarrak, eta hasi ziren aukerak iristen.

Robertok bizpahiru izan zituen oso garbiak, eta horietako bat sartu zuen, buruz, atsedenaldia baino lehenago. Bigarren zatiari ere ondo ekin zioten debagoiendarrek, eta atezainaren gainetik baloia loratuz gol ederra egin zuen Iñigo Arregik.

Huts eta bikoarekin Idiazabalek baloi luze ugari jarri zituen Aloñakoen arean, bere aurrelari garaiaren bila. Etxekoek estutu egin zuten, eta gorriak atzean sartu ziren apur bat. Gola egin zuen Idiazabalek korner batean, partidua amaitzeko oraindik 15 minutu falta zirela.

Handik aurrera saiatu zen Idiazabal bigarrenaren bila, joko zuzena eginez. Oñatiarrek apur bat sufritu zuten, etxekoek aukera garbirik eduki ez arren baloiak denbora asko egiten zuelako euren zelaian. Azkenean, baina, garaipena

**PREFERENTEA** > EGOERA TXARREAN ZEGOEN ZELAIA

## Ondo jokatzeko aukerarik gabe, puntu ona Arrasatera

**MUNDARRO**

**J.I.** > BERGARA

Astigarragako zelaiaren egoerak baldintzatu zuen hein handi batean Mundarro eta Mondraren arteko partidua. Astuna zegoen zelaia, belar gutxi eta lokatza askorekin.

Ondorioz, futbol askorik ez zen ikusi partiduan eta bi taldeek joko zuzenaren aldeko hautua egin zuten, baloi luzeak bidali bakarren bat ehizatu eta sarera bidaltzeko asmotan.

Partiduak bi zati izan zituen. Aurrenekoan etxekoak izan ziren nagusi, nahiz eta aukera garbirik sortu ez. Bigarrenean, berriz, hobeto ibili zen Arrasateko taldea, eta bereak izan ziren aukera onenak.

Partiduko azken hamar minutuetan sortu zuen Mondrak arriskurik gehien. Bi aukera garbi izan zituen Loitik: batean, Mundarroko atezainarekin buruz buru, ez zuen asmatu; bestean, area kanpotik egindako jaurtiketa atezainak geratu zuen.

Andoni Azkargorta nahikoa gustura geratu zen taldeak egindako lanarekin: “Ezin zitekeen askoz gehiago egin. Atzealdean seguru egon gara behintzat, eta puntu honek konfiantza emango digu”.

Datorren jardunaldian Tolosa hartuko du etxean Mondrak. Aurkari zaila aurrez, sailkapeneko aurrealdean dago-eta. Baina Azkargortak dio beldurrik gabe aterako direla zelaira: “Eurak ez daude bolada onean. Azken bi partiduak berdindu dituzte”. Joanekoan

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Hondarribia** | **36** | 18 |
| 2. **Aloña Mendi** | **34** | 18 |
| 3. **Aretxabaleta** | **34** | 18 |
| 4. **Tolosa** | **33** | 18 |
| 5. **Pasaia** | **31** | 18 |
| 6. **Trintxerpe** | **31** | 18 |
| 7. **Hernani** | **30** | 18 |
| 8. **Real Union** | **29** | 18 |
| 9. **Berio** | **28** | 18 |
| 10. **Idiazabal** | **25** | 18 |
| 11. **Aurrera** | **24** | 18 |
| 12. **Mondra** | **21** | 18 |
| 13. **Zumaiako** | **17** | 18 |
| 14. **Euskalduna** | **17** | 18 |
| 15. **EHU Vasconia** | **14** | 18 |
| 16. **Mundarro** | **13** | 18 |
| 17. **Anaitasuna** | **11** | 18 |
| 18. **Amaikak Bat** | **10** | 18 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Amaikak Bat-Aurrera | 2-3 |
| Tolosa-Anaitasuna | 0-0 |
| Mundarro-Mondra | 0-0 |
| Idiazabal-Aloña Mendi | 1-2 |
| Aretxabaleta-Berio | 2-0 |
| Euskalduna-Pasaia | 1-2 |
| Trintxerpe-EHU Vasconia | 3-1 |
| Hernani-Real Union | 3-1 |
| Zumaiako-Hondarribia | 0-1 |

**Hurrengoak**

Mondra-Tolosa
Aloña Mendi-Mundarro
Berio-Idiazabal
Pasaia-Aretxabaleta
EHU Vasconia-Euskalduna
Real Union-Trintxerpe
Hondarribia-Hernani
Aurrera-Zumaiako
Anaitasuna-Amaikak Bat

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **BIGARREN ERREGIONALA** | |
| Bergara-Landetxa | 3-1 |
| **GAZTE MAILAKO EUSKAL LIGA** | |
| San Ignacio-Aretxabaleta | 2-3 |
| Abetxuko-Bergara | 1-3 |
| **OHOREZKO GAZTEAK** | |
| Aloña Mendi-Anaitasuna | 1-1 |
| **LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK** | |
| Mondra-Lengokoak | --- |
| Amaikak Bat-Aretxabaleta B | 5-1 |
| Eibartarrak-Bergara | --- |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Beasain-Bergara | 1-1 |
| Hondarribia-Aretxabaleta Ariz. | 2-1 |
| Aloña Mendi-Zarautz | 4-0 |
| Arrasate-Touring | 0-2 |
| **LEHENENGO MAILAKO KADETEAK** | |
| Mundarro-Aretxabaleta | 6-0 |
| Soraluze-Aloña Mendi | 2-0 |
| Mutriku-Arizmendi | 9-0 |
| **KADETE TXIKI** | |
| Arrasate-Añorga | 5-0 |
| **OHOREZKO INFANTILAK** | |
| Behobia-Bergara | 0-0 |
| Hernani-Aretxabaleta | 0-1 |
| **LEHENENGO MAILAKO INFANTILAK** | |
| Aloña Mendi-Lazkao | 0-2 |
| **INFANTIL TXIKI** | |
| Sanse B-Arrasate | 3-0 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Elgoibar | 2-0 |
| Bergara-Vasconia | 3-0 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Añorga-Mondra | 1-3 |
| Arizmendi B-Urola | 3-2 |
| Segura-Aloña Mendi | 0-1 |
| Amaikak Bat-Arizmendi | 2-0 |
| **EMAKUMEZKOEN F-8 KADETEAK** | |
| Amara Berri-Aloña Mendi | 0-2 |

**LEHEN ERREGIONALA** > BERGARA-EIBARTARRAK

# Bergarak garaipenaren bidea aurkitu du berriro

## Antzuolaren aurkako porrotaren ondoren, arazorik gabe irabazi zioten mahoneroek Eibartarrak taldeari



Imanol Cabanillas aurrelari bergararra, pase sakon bat egiteko unean, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

BERGARA

**3-0**

EIBARTARRAK

**Bergara** > Jokin Belategi, Agirrezabal, Nafarrete (Oregi, 71. m.), Iñurrieta, Lazpiur (Urteaga, 83. m.), Agirre (Otero, 71. m.), Loiola, Martinez, Alzola (Iñaki Mujika, 63. m.), Martin Ibañez (Eloy Crespo, 63. m.) eta Imanol Cabanillas.

**Eibartarrak** > Iraola, Peña, Sarasua, Artetxe, Berbois, Gorostiza (Joanes, 73. m.), Moyua, Berribeitia, Sanchez, Ramon (Guruzeta, 79. m.) eta Heriz (Jose Angel, 45. m.).

**Bestelakoak** > Ikusle gutxi Agorrosinen, 150 bat lagun. Bigarren itzulerako lehen partidua. Aritz Regurero hernaniarra izan zen epailea. Partidu lasaia tokatu zitzaion. Hiru txartel hori atera zizkien etxekoei: Nafarreteri, Alzolari eta Manu Diaz entrenatzaileari, protesta egitearren. Eibartarrak taldearen

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Sailkapeneko seigarren tokian zegoen Eibartarrak taldeak uste baino buruhauste gutxiago eman zion Bergarari zapatuan. Aurreko astean kolpe gogorra jaso zuten mahoneroek Antzuolaren aurka etxean galtzean, eta hiru puntuak derrigorrezkoa zuten, lidergoari eusteko eta, aldi berean, konfiantza berreskuratzeko. Manu Diazen mutilek ez zuten hutsik egin.

**LEHEN GOLA, 15. MINUTUAN**

Partidua berehala alde jarri zitzaion etxeko taldeari: 15. minutuan, alboko sake baten ondorioz, Loiolak buruz ukitu eta Martin Ibañezek egin zuen 1 eta 0koa, area txikian. Bergara nagusi zen argi eta garbi eta eibartarrek nekez igarotzen zuten zelai erdiko marra. Gauzak horrela, lan gutxi izan zuen Belategi atezainak, Sotoren ordezkoa zapatuan.

Hainbat aukera galdu eta gero, gol bateko abantailarekin joan ziren etxekoak aldageletara atsedenaldian. Bigarren zatian Bergarak jarraitu zuen erasoan eta 56. minutuan Oier Loiolak ederki gurutzatu zion baloiari Iraolari, erdilari bergararraren jokaldi on baten ondorioz. Handik 8 minutura etorri zen partiduko jokaldi onena beharbada: Martinezek bi arerioa atzean utzi zituen ezkerraldean, korner marraren inguruan, eta bere erdiraketa sareetara errematatu zuen atera berria zen Iñaki Mujikak. Denbora luzean jokatzeke egon ondoren (aurreko astean itzuli zen taldera), albiste pozgarria Mujikarena. Baita Lazpiurren itzulerarena ere. Haien ekarpena estimatuko du taldeak. Manu Diazek azpimarratu bezala, "20 jokalari ditugu eta edozeinek joka dezake". Hori erakusteko, bost aldaketa egin zituen joan den asteko hamaikakoarekiko. Otero 4-0koa egiteko zorian egon zen baina Iraolak gelditu ederra egin zuen. Dena erabakita, azken ordu laurdena soberan egon zen.

Manu Diaz pozik zegoen amaieran. "Etxeko partiduak irabaztea ezinbestekoa da, kanpoan zerbait aterako dugu-

### emaitzak eta sailkapenak

**LEHEN ERREGIONAL MAILA**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Bergara** | **39** | 16 |
| 2. **Mutriku** | **32** | 16 |
| 3. **Zestoa** | **30** | 15 |
| 4. **Lagun Onak** | **28** | 15 |
| 5. **Urola** | **26** | 16 |
| 6. **Eibartarrak** | **23** | 16 |
| 7. **Aretxabaleta B** | **21** | 16 |
| 8. **Orioko** | **20** | 16 |
| 9. **BTLS** | **19** | 16 |
| 10. **Lazkao** | **19** | 16 |
| 11. **Elgoibar** | **18** | 16 |
| 12. **Anaitasuna** | **18** | 16 |
| 13. **Ilintxa** | **16** | 16 |
| 14. **Antzuola** | **16** | 16 |
| 15.**Mondragon B** | **15** | 16 |
| 16. **Tolosa B** | **11** | 16 |

| Emaitzak | |
|---|---|
| MONDRAGON B-TOLOSA | 2-3 |
| UROLA-ELGOIBAR | 2-2 |
| ANAITASUNA-LAGUN ONAK | -1-1 |
| ZESTOA-ANTZUOLA K.E. | 3-1 |
| BERGARA-EIBARTARRAK | 3-0 |
| LAZKAO-ORIOKO F.T. | 0-1 |
| ILINTXA-BTLS K.E. | 3-2 |
| MUTRIKU-ARETXABALETA B | 3-1 |

| Hurrengo jardunaldia |
|---|
| LAGUN ONAK-UROLA |
| ANTZUOLA K.E.-ANAITASUNA |
| EIBARTARRAK F.T.-ZESTOA |
| ORIOKO F.T.-BERGARA K.E. |
| BTLS K.E.-LAZKAO K.E. |
| ARETXABALETA B-ILINTXA |
| TOLOSA-MUTRIKU |
| ELGOIBAR-MONDRAGON B |



JOSETXO ARANTZABAL

### Igoera fasean, Arizmendiko neskek Urolari irabazi (3-2)

Emakumezkoen igoera fasean, senior mailako Arizmendiko neskek 3-2 irabazi zioten zapatuan Urolari, Almenen. 2-1ekoarekin bukatu zen lehen zatia (Ane De la Fuentek egin zituen bi golak) eta 2. zatian Eider Lorenzok egin zuen hirugarrena. Amaieran Urolak aldea murriztu arren, garaipena etxekoendako izan zen. Igoera faseko bi partiduak irabazi dituzte Arizmendiko neskek (goiko argazkian, Aritz Elortza entrenatzailearekin). Mondragoneko neskek, bestalde, Añorgan irabazi zuten, 1-3.

**LEHEN ERREGIONALA** > 16. JARDUNALDIA

# Emaitza txarra gainerako taldeek

## Aretxabaletak, Bergarako BTLSek eta Antzuolak etxetik kanpo galdu; Mondrak etxean galdu Tolosarekin

**E.M.** > BERGARA

Bergararendako izan ezik, jardunaldi beltza izan zen bigarren itzulerako lehena lehen erregional mailako gainerako taldeendako. Aretxabaletako bigarren taldeak Mutrikun galdu zuten zapatuan, 3-1. Mutrikuarrak sendo ari dira etxean eta bigarren postuari eusten diote, Bergara liderrarengandik zazpi puntura.

**LEGAZPIN ETA ZESTOAN, GALDU**

BTLSek, Bergarako beste taldeak, punturen bat ateratzeko moduko partidua zuen Ilintxaren aurka. Hala ere, bergararrek partidu txarra egin zuten: 3-0 galtzen joan ondoren, Alex Abajok eta Sanchezek egin zituzten BTLSren golak. Joan den astean Bergara liderrari irabazi ostean, Antzuolak Zestoan galdu zuen, 3-1. Zubikarai, Godoi eta Galardiren bajak igarri zituzten antzuolarrek. Arbuluk egin zuen Antzuolaren gola (bana atsedenaldian) baina Zestoak bi gol gehiago egin zituen jarraipenean. Azkenik, Mondragonek Tolosaren aurka galdu zuen atzo, 2-3. Luzapenean iritsi zen tolosarren garaipena Makuk eta Corcuera

**PILOTA** > FEDERATU OHIEN ARTEKO TXAPELKETA

# Urteetan ganbaran gordeta egondako fraka zuriak, berriz ere pilotalekura

Mauri Zubillagarekin pilotan ibilitakoen arteko txapelketa ari dira egiten Arrasaten

Bakarren batek utzi zuela 30 urte ere badiren arren, maila polita ari dira ematen



Lopez de Munain, Fernandez de Arroiabe, Osinaga eta Urkia, egubakoitzeko partiduan. JULEN IRIONDO

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Txapelketa berezia da Arrasaten egiten dihardutena; berezia, baina benetakoa, txapelketa. Benetakoa eta polita. Inoiz –batzuk duela urte asko, beste batzuk orain dela ez horrenbeste–, zuriz jantzita, Arrasateren izena bizkarrean eraman zutenen arteko txapelketa antolatu dute.

Egubakoitz gaua; Uarkape pilotalekuko argiak piztuta daude, nahiz eta harmailetan jende gehiegi egon ez. Harmailak hotz, baina kantxa bero. Izan ere, eurendako antolatutako txapelketa da hau, pilotari izan zirenendako, garai batekoak gogora ekartzeko –ikustera ere joan daiteke jendea–. Kantxa bero, ze lehen izandako irabazteko grina ez du inork galdu, eta batzuk ezta kolpea eta posturak ere.

**IKUSTEKO PARTIDU POLITAK**

Egubakoitzeko lehenengo partiduan Lopez de Munain eta Fernandez de Arroiabe Osinaga eta Urkiaren kontra. Pilota utzi zutela urte batzuk izan arren, apur bat prestatuz gero oraindik maila emango lukete agian Debarroko txapelketan: pilotakada ederrak, dejadak, horma bikoak, ezker-zeharrak, boleak, gantxoak... huts batzuk ere bai, baina jokaldi politak asko.

Beharra badago euren burua lurrera bota ere bai, tanto denak borrokatu, eta zalantzazkoak protestatu: jokoa nahastu da aurreneko koadroan, zabalean; gorrien pilotakada balekoa izan da frontisean, baina kontrakantxara doa nabarmen. Botea egin aurretik, ordea, aurrelari urdinari eman dio pilotak. Hala ere, tantoa urdin epaile lanetan ari den Mauri Zubillagak. Pilotariek onartu dute erabakia, eztabaida piztu da, ordea, harmailetan bildutako zaleen artean. Eta tartean Patxi Murgoitio, profesionaletan hamaika partidutan epaile egindakoa; eta honek, baietz, Mauri Zubillagak hartutako erabakia zuzena izan dela. Denak ez daude konforme, baina tira. Eztabaidan jarraitzen duten bitartean, tanto bikaina egin du Osinagak, eta Lopez de Munain kontrarioak txalo. Ahal dela denek irabazi nahi dute, baina ondo pasatzea, aspaldiko frontoi lagunekin berriz elkartzea, barre batzuk egin eta izerdi apur bat botatzea dira helburu nagusiak. Baina bai, irabaztea ere bai: amaitu da partidua, Lopez de Munain eta Fernandez de Arroiabek 22 eta 15 irabazi diete Osinaga eta Urkiari. Hurrengo partidua urtarrilaren 31n, eta irabazleek batak besteari: "geratuko gara datorren astean entrenatzeko".

Txantxa moduan hasi zen guztia, baina pilotariek ez dute txantxetan hartu txapelketa. Bazuten gogoa zerbait egiteko: "Lau deitu nituen Hondarribiko elkarte batera bazkaltzera, guztia antolatzeko, eta hamazazpi agertu ziren, autobusa alokatuta", gogoratzen du Zubillagak.

Azkenean 18 bikotek eman dute izena txapelketan –batzuk oraindik gazteak, pilota duela gutxi utzitakoak; ia mende erdi eta pilota 30 urtean utzia duenik ere bada, ordea–: "Noiz bukatuko den? Batek daki!", dio Zubillagak. Liga erara,



**Eneko Osinaga**
32 urte

### "Pilota bizikleta moduan da, ibili ez arren ez da ahazten"

"Sorpresa izan da txapelketa antolatzea, baina ilusio handiarekin hartu dugu. Ganbaran bilatu behar izan dugu arropa, baina polita ari da izaten frontoiko eta aldageletako giroa berriz ere gogoratzea. Eta jendea ondo dabil: pilotan jokatzea bizikletan ibiltzea moduan da, ez da ahazten, nahiz eta urteotan gutxi ibili".



**Arriet Fernandez de Arroiabe**
23 urte

### "Elkarri adarra jotzeko aukera ona da txapelketa hau"

"Giro ederra dugu gure artean. Elkarri adarra jotzeko aukera ona da, eta gainera parrandatxo bat ere egingo dugu amaieran. 18 urtera arte ibili nintzen pilotan, eta ordutik tarteka jokatu izan dut lagunekin. Jo askorik ez dugu egiten, baina gustura ibiltzen gara. Mauri Zubillagari zor diogu hau antolatzea, eskerrak berari".



**Garikoitz Lopez de Munain**
33 urte

### "Kaniketan ere ez zait galtzea gustatzen, beraz saiatuko gara"

"Dezenteko maila dago. Batzuk duela gutxi utzi dute pilota. Nik ordea 13 urterekin utzi nuen. Ordutik ez naiz asko ibili, baina gustatu beti. Oso polita da berriz ere zuriz jantzi eta frontoira etortzea. Gainera bikote ona jarri didate, eta saiatuko gara zerbait egiten. Kaniketan ere ez zaigu galtzea gustatzen".



**Jon Pozo**
32 urte

### "Fraka zuriak utzi egin dizkidate, nireak ez ditut aurkitu"

"Aspaldiko lagunekin jokatzeko aukera ona da. Giro ederra dugu. Nagusiagoen kontra ere jokatuko dugu, eta saiatuko gara egurra ematen. Lehengoan 11n geratu ginen, baina polita izan zen berriz ere zuriz janztea. Beno, frakak utzi egin dizkidate, nik ez nituen aurkitu. Posturak eta kolpea bai, horiek antzera mantendu ditut".



**Gaizka Murgoitio**
29 urte

### "Eskuek agoantatuko duten jakin ez eta apur bat urduri nago"

"Aspaldi jokatu gabeko lagunekin eta koadrilakoekin ere jokatzea polita izango da. Apustuak ere izango dira: gaur trago bat dugu jokoan; oraingoz hori, ze oraindik ez dakigu nola dauden indarrak. Debutatu aurretik apur bat urduri nago; nobedadea da, eta ez dakit eskuek ere nola erantzungo didaten, bigunduta ditut".

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA

# Itxura ona emanez irabazi zion MUK Urdanetari

Arrasatearrek denboraldiko bigarren garaipena erdietsi zuten zapatuan

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

**MU** > I. Zeziaga (15), Quintana (25), Hernandez (11), I. Moracho (5), Isasa –hasierako boskotea–, A. Zeziaga (4), Arejolaleiba (3), Barbero (6), Bidaburu (3), Rodriguez, Barrena eta Aranzabal.

**Urdaneta** > A. Llamosas (19), Zorrozua (4), Comonte (3), Paredes, Galvan –hasierako boskotea–, Ormaetxea (11), I. Llamosas (13), Perdices (3) eta Gutierrez (14) .

**Bestelakoak** > Ohiko ikusleak Iturripen. Epaileak, Trallero eta Garcia. Lan ona egin zuten orokorrean, Urdanetakoak haien erabakiak behin baino gehiagotan protestatu

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Javi Zurbano MU taldeko entrenatzailea pozik zegoen Urdanetari irabazi ostean. Ez zen gutxiagorako. Arrasatearrek denboraldiko bigarren garaipena erdietsi zuten zapatuan Iturripen, Urdanetaren aurka. Ez zen arerio erraza, Urdaneta sailkapeneko erdialdean baitzegoen, 12 partiduetan 6 irabazi eta gero. Baina Zurbanok ederki laburtu zuen zapatuko partidua: "Aurreneko aldiz aurtengo denboraldian lehen mailako taldea garela erakutsi dugu, partidu borobila jokatuz. Taldeak primeran lan egin du partidu osoan zehar eta jokalariek argi ikusi dute lan eginez gero zulotik atera gaitezkeela".

**HASIERATIK GOGOR ETXEKOAK**

Etxekoak garaipenaren bila atera ziren hasieratik eta Urdaneta esnatu orduko, MUk abantaila aipagarria zuen markagailuan (14-3). Urdanetako entrenatzaileak hutsartea eskatu behar izan zuen arrasatearrak gelditzeko asmoz. Urdaneta hasi zen poliki-poliki aldea murrizten, lehenbiziko laurdena 25 eta 15 amaitu zelarik. Bigarren laurdena, aldiz, bisitariendako izan zen argi eta garbi (11-20).

Atsedenaldiaren ondoren, Ointxekoek partiduaren kontrola berreskuratu zuten. Defentsan zein erasoan asmatu zuten Zurbanoren jokalariek, eta 9 puntuko aldea lortu (48-39). Bizkaitarrek etxekoen huts batzuk aprobetxatu zituzten markagailuan hurbiltzeko (49-47) eta arrasatearren nerbioak eta presak agerian geratu ziren. 53-51ko markagailuarekin bukatu zen hirugarren laurdena. Hori gutxi balitz, hiruko bi saskiratze jarraian egin zituen Urdanetak eta horrek etxekoen alarma piztu zuen. Hortzak estutu eta berriro ere jaurtiketa aukera onak egin zituen MUk. 9-0ko partziala egin arren, bizkaitarrek ez zuten amorerik eman azken minutura arte. Faltak egin zituzten jaurtiketa libreetan MUkoek huts egingo zutelakoan. Baina ez. Arrasatearrak bigarren garaipena



Antxon Hernandez bi areriori aurre eginez; 11 puntu egin zituen. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak eta sailkapenak**

**LEHEN MAILA**

**Sailkapena**

| | Jokatuta | Irabazita |
|---|---|---|
| 1. **Cafes Aitona** | **13** | 11 |
| 2. **Zornotza** | **13** | 9 |
| 3. **Padura** | **13** | 9 |
| 4. **Viajes Marfil** | **12** | 9 |
| 5. **Promo. Legarzia** | **12** | 8 |
| 6. **Urdaneta** | **13** | 6 |
| 7. **Bidegintza** | **13** | 5 |
| 8. **Suelbat La Peña** | **13** | 4 |
| 9. **Mondragon Uniber.** | **13** | 2 |
| 10. **Centro Est. Mikeldi** | **13** | 1 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| PADURA-CAFES AITONA | 73-75 |
| BIDEGINTZA-SUELBAT LA PEÑA | 74-70 |
| PROMO. LEGARZIA-VIAJES MARFIL | – |
| MU-URDANETA | 72-67 |
| ZORNOTZA - CENTRO EST. MIKELDI | 92-68 |

**Hurrengoak**

ZORNOTZA-PADURA
CENTRO EST. MIKELDI-MU
URDANETA-PROMOCIONES LEGARZIA
VIAJES MARFIL-BIDEGINTZA
SUELBAT LA PEÑA-CAFES AITONA

**SASKIBALOIA** > GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

# Bergara lider, zapatuan Erroibideri irabazi ostean

Unai Iñarrak zuzendutako senior mailako taldeak partidu bakarra galdu du orain arte

Etxekoen erreakzioa azken zatian etorri zen zapatuan, 27-10eko partziala lortuta

**SORALUCE BKE**

**E.M.** > BERGARA

Bergarako senior mutilen taldea Gipuzkoako bigarren mailako lider dugu, zapatuan denboraldiko zortzigarren garaipena lortu eta gero. Unai Iñarrak zuzendutako taldeak partidu bakarra galdu du orain arte. Zapatuan arerio zuzena zuten aurrean eta kostata irabazi zuten etxekoek. Izan ere, azken laurdenera arte beti ere aurretik izan ziren irundarrak markagailuan: 19-21, 28-36 eta 37-49 lehenbiziko hiru laurdenetan. Etxekoen erreakzioa azken zatian etorri zen, 27-10eko partziala lortuta. Azken laurdenaren hasieran gertatu zen partiduko jokaldi eztabaidagarriena: epaileak etxekoen aldeko saskiratzea adierazi zuen, baina Alonsoren jaurtiketak sarea ukitu baino ez zuen egin.

Bergararen aldetik hauek izan ziren kantxaratutako jokalariak: Asier Aizpurua, Gorka Blazquez (8 puntu), Jakue Bernardo, Aimar Julian (1), Ander Arazkonaga (17), Jon Beistegi (10), Jon Arteaga (2), Iban Alonso (8), Iker Murillo (8) eta Ugutz Basauri (10).

**SEI TALDE SASKIBALOI SAILEAN**

Bergarako saskibaloi sailak beste bost talde atera ditu aurten. Hauek izan dira asteburuko emaitzak: Bera Bera Ulia 36; Soraluce BKE 35 (gazte neskak). Transbretaña BKE 54; Zarautz 31 (junior mailako mutilak). Konde Panaderokua BKE 58; Goierri 46 (kadete mutilak). Talaia Hondarribia 21; Servimasa BKE 51 (infantil



Iban Alonso pibot bergararra (12), errebotea lortzeko borrokan. JOSETXO ARANTZABAL

**ERRUGBIA** > EUSKADIKO LIGA

# Jokalari bat gutxiagorekin, Arrasatek Durangori irabazi

Durangoren aurka lau entsegu lortzearren, 'puntu bonusa' eskuratu zuten etxekoek

Zapatuko garaipenaren ostean, bigarren fasea lehengo postuan hasiko dute arrasatearrek



Hasieratik erasora jo zuten arrasatearrek. Lau entsegu lortu zituzten zapatuan, Durangoren aurka. JOSETXO ARANTZABAL

**M.G.** > BERGARA

Eguraldia lagun, norgehiagoka polita izan zen Arrasateko Rugby Taldeak eta Durangok zapatu eguerdian Mojategin jokatutakoa. 26-12ko emaitzarekin nagusitu ziren Igor Isasiren jokalariak. Gainera, lau entsegu lortzearren, puntu bonusa eskuratu zuten etxekoek. Gauzak horrela, bigarren fasea lehenengo postuan hasiko dute arrasatearrek. Oso garrantzitsua zen etxekoendako zapatuko partidua irabaztea eta joko onarekin gainera lortu zuten helburua. Itxura ona ematen dabil Arrasate azken partiduetan.

**JOKALARI BAT GUTXIAGO**

Arrasateko taldeak 14 jokalari baino ez zituen gertu Durango hartzeko. Partidua hasi eta berehala, Markel Elortzak, min hartuta, zelaia utzi behar izan zuen eta jokalari bat gutxiagorekin jokatu behar izan zuten etxekoek. Hala ere, erasora jo zuten etxekoek hasieratik, garaipenaren bila eta ikusitakoa ikusita, ustekabean harrapatu zituzten durangarra. Lehen zatia 21-0ko emaitzarekin bukatu zen. Bizkaitarrak ez ziren gauza etxekoak geratzeko. Honelakoetan gertatu ohi denez, jokalari bat gutxiagorekin aritzeak arrasatearren motibazioa indartu zuen.

**NEKEA BIGARREN ZATIAN**

Hala ere, neurri handi batean nekeak eraginda, bigarren zatian sufritzea tokatu zitzaion Arrasateri. Durangoko entrenatzaileak ahal zituen aldaketa guztiak egin zituen eta aldaketek kanpotarren jokoa hobetu zuten. Horrela, bigarren zatia hasi bezain pronto, Durangok entsegua lortu zuen eta Arrasatek entsegu horri beste batekin erantzun arren, bigarren zati osoa erasoan baino defentsa lanetan igaro zuen etxeko taldeak. Edozein modutan, pentsatu zitekeena baino hobeto moldatu zen Arrasate partiduaren amaieran. Lehen zatian lortutako aldea zabalegia zen eta durangarrak estutu bai, baina ez ziren gehiegi hurbildu.

Arrasateko taldeari dago-

**ESKUBALOIA** > GIPUZKOAKO LIGA

# Emozioa eta joko ikusgarria atzoko Bergara-Egia eskubaloi partiduan: 33-32

Partidua bukatzeko zortzi segundo falta zirela, Mikel Larrañagak garaipenaren gola egin zuen; 7. tokian dago Bergara orain



Mikel Marauri ezker hegaleko jokalari bergararra, donostiarren defentsa gainditzeko ahaleginetan. JOSETXO ARANTZABAL

**E.M.** > BERGARA

Domeka eguerdian Labegaraietara hurbildutako zaleek Bergarak eta Egiak eskainitako ikuskizunarekin gozatzeko aukera izan zuten. Josetxo Muniategi etxekoen entrenatzailearen arabera, aspaldiko ligarik berdinduena da aurtengoa eta agerian geratu zen atzo: Egia Bergara baino okerrago dago sailkapenean, baina talde sendo baten itxura eman zuen Bergaran. Azken segundora arte sufrituta irabazi zuten etxekoek, gol bakar bategatik: 33-32. Gol kopuru handiak erakusten du partidua ikusgarria izan zela. Maila handiko jokaldiak ikusi ahal izan ziren. Atzoko garaipenari esker, Bergara 7. tokian dago orain sailkapenean.

**GORABEHERAK MARKAGAILUAN**

Gorabehera askoko partidua izan zen atzokoa. Partidua hasi eta berehala lau goleko errenta lortu zuen Bergarak, baina donostiarrak joan ziren Bergarari neurria hartzen, eta atsedenaldian gol bat aurretik zen etxeko taldea (17-16).

Bigarren zatian Egiako entrenatzaileak defentsa mistoa agindu zuen Mikel Plazaolarendako eta etxekoek zailtasunak izan zituzten erasoko jokaldietan. Hori gutxi balitz, Egiak erraz egiten zituen golak eta bi goleko abantaila ere izan zuen. Berdintzea lortu zuen Bergarak eta zortzi segundo falta zirela, Mikel Larrañagak 33-32koa egin zuen. Egiak egindako sake bizkorrak ez zuen fruiturik eman. Merezitako saria jaso zuen Bergarak.

**PLAZAOLA, GOLEGILE NAGUSIA**

Bergararen aldetik hauek jokatu zuten atzo: Jon Errasti, Gorka Uribe, Etxeberriarteun (gol bat), Marauri (1), Iñaki Najera (2), Xabier Najera (1), Mikel Plazaola (11), Lenisoro (1), Iña-

**ESKUBALOIA**

# Ford Mugarrik Egian galdu: 35-29

Hamaika jokalari baino ez zituzten arrasatearrek Egian

**E.M.** > BERGARA

Sailkapeneko bigarren postuan dagoen Egia taldearen etxean jokatu zuen Ford Mugarrik zapatuan. Arerioaren maila eta Ford Mugarrik zituen bajak kontuan izanda, ez zuten partidu erraza arrasatearrek. Hamaika jokalari baino ez zuen deialdian sartzerik izan Edu Orgaz Ford Mugarriko entrenatzaileak. Lehen lerroan jokatzeko hiru jokalari besterik ez zituen. Hala ere, lehen zati txukuna egin zuen Ford Mugarrik eta gol bateko abantailarekin konformatu behar izan zen Egia atsedenaldian (15-14).

**INTENTSITATEAK BEHERA**

Beti markagailuan atzetik joateak eta nekeak izan zuen eraginik bisitarien intentsitate beherakadan. Aldea zabalduz joan zen eta azkenerako sei goleko aban-

## Gorka Alartzia > Lan Mobel Iraurgiko saskibaloi jokalaria

# “Badakit zein den nire zeregina tal-de honetan”

JASONE ZABALA > ARETXABALETA

**Hasierako saskiratzeak Goierri eta Beasaingo taldeetan egin zituen Gorka Alartziak (Urretxu, 1977). Azken urteetan Arrasaten ibili da jokatzen Ointxe! saskibaloi taldean eta aurten Azpeitiko Iraurgi taldean dihardu, EBAn. Azkenean, 30 urterekin etorri zaio aspaldian amesten zuen aukera. Azpeitiko esperientziaz, Arrasaten bizi izandakoaz eta etorkizunaz hitz egin dugu harekin.**

Ointxe! taldearekin EBAn jokatzeko ametsa ezin izan zenuen egi bihurtu, eta ez zenuen bi aldiz pentsatu Lan Mobel Iraurgi taldetik aukera hori eskaini zizutenean.

Ointxe! taldearekin igoera lortu genuenean igotzeko dirurik ez zegoela esan ziguten. Handik bi astera Iraurgi taldeko presidentearen deia jaso nuen, hango taldean jokatzeko, eta hara joatea erabaki nuen. Azpeitiko taldeak bazekien Ointxe! taldeak ez zuela EBA mailan jokatuko eta joko antolatzaile baten faltan zebiltzanez, berehala lotu genuen guztia.

Zer moduz Azpeitia aldean?

Ondo moldatzen naiz; gainera, taldeko giroa oso ona da. Maila bat gorago jokatzen egotea asko nabaritzen da. Astean lau egunetan izaten ditugu entrenamenduak, irteerak ere luzeak dira... Beste pentsaera batekin joan behar da hara. Orain arte Arrasaten asko disfrutatu dut, lagun artean... EBA maila profesionalagoa da zentzu horretan.

Taldeak denboraldi hasiera ezin hobea izan du.

Taldean berria izanda, ez nekien beste taldeen maila nolakoa zen. Banekien Santurtziko taldea beti goian ibili dela baina ez besterik. Taldekideek zioten, talde ona geneukala eta orain horren emaitzak ikusten dihardugu. Liga hasieran lehen zortzi partiduak jarraian irabazi genituen; horrek lagundu egiten du taldean daukagun giro onean.

Zein diferentzia nabaritu duzu Lan Mobel Iraurgin jokatzearen eta Ointxe! taldean jokatzearen artean?

Alde nagusia egitura aldetik dago. Azpeitiak jende asko mugitzen du bere inguruan. Partiduak ikustera 800 pertsona joaten dira. Taldearen atzean lanean teknikariak, entrenatzaileak, prestatzaile fisikoak, masajistak... jende asko dago. Arrasaten, azken batean, lagun talde bat ginen.

Ekonomikoki, esan dezakegu maila honetan bizi izateko ematen duela saskibaloiak?

Jokalari batzuk hemendik bizi dira, baina ez da ohikoena. Gainera, taldekideekin horren gainean hitz eginda, askok esan didate maila bat gorago jokatzeko aukera izanda ere, ez zaiela interesatzen, nahiago dutelako pixka bat beherago jokatu eta gutxiago irabazi. Gorago egonda saskibaloia askoz ere lotuagoa da.

Zerbait utzi behar izan duzu alde batera Azpeitira jokatzera joateko?

Urte hasieran gehien kostatu zitzaidana familiaren kontua izan zen. Ume txikitxo bat daukat eta aste bukaera guztietan kanpoan egotea gogorra egiten da, alde horretatik. Baina konpondu naiz egunean zehar harekin egoteko eta, bide batez, nire ametsa ere betetzeko. Barruan neukan arantza hori ere kendu dut.

Arrasaten zu zinen antolatzaile titularra, minutu asko jokatzen zenituen... Azpeitian, berriz, Joseba Ibargutxi duzu zure aurretik postu horretan. Motibazioa bera da?

Horrelako mailetan jokalari bakoitzak bere rola izaten du. Entrenatzaileak denboraldi hasieran esan zidan iazkoarekin alderatuta aurtengoa urte desberdina izango zela eta taldean nire rola zein zen barneratu behar nuela. Hortik hasita, jokalari bakoitzak jakin badaki gauzak hobeto edo okerrago eginda bakoitzaren rola ez dela aldatuko. Antolatzaile titularra ez naizen neurrian eta motibazioari dagokionez, saiatu behar dut beste gauza batzuk ematen taldeari: intentsitate handiagoa defentsan, taldeko giroaren alde lan handiagoa egin...

Taldekide gehienak –11 jokalaritik 9– gipuzkoarrak zarete. Egoera horrek laguntzen du taldearen ibilbide on horretan?

Hasiera baten, proiektuak horretan zetzan: ahalik eta gipuzkoar gehienekin jokatzea, eta emaitza oso ona izaten ari da. Jorge Leon eta Edgar San Epifanio ditugu taldean eta oso gustura daude gure artean.

Jarraitzen duzu aurten Ointxe! taldearen ibilbidea?

Bai. Gainera, lagun handiak ditut han. Lagun handienak, beharbada, Oñatira joan dira jokatzera, baina badut lagunik Arrasaten. Galdetu egiten diet, telefonoz egoten gara... Oraingo egoerak pena ematen dit; hainbeste urtetan hor goian egon den taldea behean ikustea. Baina denboraldi hasieran apustu bat egin zuten, eta uste dut ez zirela kontziente izan zernolako apustua egiten ari ziren; ez zuten uste hain estu eta larri ibiliko zirenik; hala eta guztiz ere, uste dut oraindik badutela erreakzionatzeko denbora.

Oraindik bigarren itzulia gelditzen da. Taldearen helburua igoera fasea jokatzea da?

Igoera fasea lehen hiru taldeek jokatzen dute. Laugarren sailkatuarekiko hiru partiduko abantaila dugu momentu honetan. Nik uste dut hori lortuko dugula. Garrantzitsua da lehen postuan amaitzea, txapelketa lehen postu horretan amaitzen duenak igoera fasean non jokatu –etxean edo kanpoan– aukeratu dezakeelako.

Urtebetez bizi nahi zenuen esperientzia da Azpeitikoa. Nahikoa duzu aurtengo denboraldiarekin ala jarraitzeko asmorik bai?

Hasiera batean, urte bakarreko esperientzia izango da. Gero ikusi egin behar... Beti gertatzen zait gauza bera. Den-

**“Astean lau egunetan izaten ditugu entrenamenduak; irteerak ere luzeak dira”**

**“Alde nagusiena egitura aldetik dago; Azpeitiak jende asko mugitzen du”**

**“Ume txikitxo bat daukat eta aste bukaera guztiak kanpoan egotea gogorra egiten da”**

**“Hasiera batean, urte bakarreko esperientzia izango da; gero, ikusi egin beharko da...”**




Lan Mobel Iraurgirekin denboraldi bikaina egiten dabil Alartzia. XABIER URTZELAI

BERGARA

# Areto futbolean Labegaraietan jardun zuten benjaminek

**FUTBOLA** Benjaminek areto futbolean jokatu zuten Labegaraietan eta alebinek futbol zazpian Ipintzan **HOTZA** Kiroldegi kanpoan goizean izotza egon arren, neska-mutikoek korrika egin zioten aurre hotzari **DATORREN ASTEAN** Liga eran jokatzen dutenez, datorren astean ere futbolean jardungo dute berriro

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Zapatua, goizeko hamarrak, Labegaraietako kiroldegi kanpoan autoak zuri, izoztuta. Hotzari aurre egiteko gertu, Eskola Kirolean jarduteko gogoz, neska-mutikoak barrura. Jertsea kendu barik batzuek, mauka luzeko kamisetekin besteak eta ausartenak praka motzetan, jolasean berotzeko asmoz-edo.

Areto futbolaren txanda izan da aste honetan. Lehenengo partiduan benjamin mailakoek jardun zuten 40 minutuz. Mariaren Lagundia A taldekoek San Martin A talde mistokoen aurka jardun zuten. Hainbat guraso animuak ematen zebiltzan bitartean gaztetxoak baloiaren atzetik korrika, aurkaria zeinek hobeto gainditu eta gol gehiago zeinek sartu, lehian, baina lagun giroan. San Martinekoak izan ziren nagusi amaieran. Emaitza: 7 eta 2.

Ondoren, benjaminen beste lau taldek bi partidu jokatu zituzten aldi berean Labegaraietako barruko kantxan: Antzuola C taldea San Martin taldearen aurka eta San Martin D Antzuola Aren kontra. Hauek ere erakutsi zuten jokoan areto futbolean daukaten gaitasuna.

**ALEBINAK IPINTZAN**

Benjamin mailakoak Labegaraietan eta futbol zazpian alebin mailako neskak eta mutilak Ipintzan.

Futbolean jardun dute aste honetan eta hurrengoan ere hala ibiliko dira, liga eran jokat-



I.A.

**Mariaren Lagundia A.** Goian: Markel Dominguez, Xabier Argarate, Ibai Gonzalez, Mikel Agirre, Haritz Basterra, Jon De la Rosa. Behean: Iker Barkero, Erik Herran, Henrike Da Silva. Asier Zubia, Gorka Azkargorta. Falta dira: Jackson Yañez eta Paul Roman.



I.A.

**San Martin A.** Goian, ezkerretik hasita: Olatz Ruiz de Larramendi, Iñigo Agirre, Iñaki Gonzalez eta Oier Barragan. Beheko ilaran: Beñat Uribesalgo, Andoni Elortza eta Kepa Roige. Argazkian falta da: Olatz Azkarate.



I.A.

**Antzuola A.** Goian, ezkerretik: Yeray Gomez, Jouness Louiz, Aimar Larrea eta Unai Larrea. Behean: Irati Arantzabal, Uxue Iparragirre, Eñaut Madariaga eta Beñat Kortabarria. Argazkian falta dira: Aiert Kerexeta eta Onintza Olano.



I.A.

**San Martin D.** Goian, ezkerretik: Danel Murgiondo, Angel Hernandez, Naiara Azkarate, Asier Reguero eta Oualid Saidi. Behean: Irene Jauregi, Martin Larrañaga eta Jon Orbea. Argazkian falta dira: Urko Nogales, Daniel De Lucas eta Oier Jauregi.

## KANPOKO ALA BARRUKO KANTXAN JOKATZEA DUZUE GUSTUKOAGO?



**Olatz Azkarate**
San Martin A

Kiroldegian, barruan jokatzea nahiago du Olatzek, "hotzik ez duelako egiten". Oraingoz ez zaie tokatu hotz askorik pasatzea, baina tokatuz gero "asko mugitzea" omen da hotzari aurre egiteko modurik onena.



**Jon De la Rosa eta Ibai Gonzalez**
Mariaren Lagundia A

Joni eta Ibairi barruan jokatzea gustatzen zaie, "ateek ez daukatelako sarerik eta jausiz gero ez delako minik hartzen". Hala ere, kanpoan ondo moldatzen dira. Areto futbolean jardun arren, futbola gogokoago dute.



**Paul Roman eta Jackson Yanez**
Mariaren Lagundia A

Kanpoan jokatzea gustukoago dute Paulek eta Jacksonek "libreagoa delako". Ez zaie axola kanpoko kantxan hotza pasatzea edo jausi eta mina hartzea, "horrela gehiago ikasiko dugu", esan digute.



**Uxue Iparragirre eta Unai Larrea**
Antzuola A

Batzuetan kanpoan jokatzen dute eta besteetan barruan eta barruko kantxa nahiago dute futbolerako duda barik, "kanpoan hotza egiten du eta gutxitan jausi arren, batzuetan jausten gara, eta barruan ez dugu minik hartzen".



**Irene Jauregi eta Martin Larrañaga**
San Martin D

Gehienetan barruan jokatzen dute eurei gustatzen zaien moduan. "Barruan hobeto da jokatzea bero egiten duelako eta lurra lauagoa izanik, min gutxiago hartzen dugu". Saskibaloian eta atletismoan ere ibiltzen dira barruan.



**> DANBAKA**
Danbaka lehiaketako irabazle The Wet Band taldeari elkarrizketa egin diogu > 32



**> DANBAKA**
Danbakako finalista Adi Holden eta Norman taldeei elkarrizketa bana egin diegu > 33



**> URKO ARISTI**
ETBko kazetari eta eguraldi iragarle Urko Aristiri ezagunarekin izan gara > 40




**ESKUAK BETETA** Sari nagusiarekin eta ikusleen oniritziarekin irabazi dute Danbaka lehiaketa The Wet Bandekoek. JOSETXO ARANTZABAL

# Saio borobilarekin, The Wet Bandek sari bikoitza

Dotoreziarekin bezain fin eta txukun jota, Mutrikura joan da sari nagusia

Ez zen lehia samurra izan, Adi Holden eta Norman berritasunekin etorri ziren-eta

**JON BEREZIBAR** > ELGETA

Irabazi ala ez, partehartzaile zein ikusle, egubakoitzean ordu txikiak arte iraun zuen festak eta ospakizunak luzapena izan zuen gero Mutrikun. Ez da gutxiagorako, The Wet Band eskuak beteta itzuli zen etxera eta saio borobila egin izanaren poz guztiarekin. Finalak ez zuen huts egin eta epaimahaiak ezta ere gaueko hiru taldeak aukeratzerakoan. Garailea, baina, talde bakarra izan behar da eta bidezko izatea utopia besterik ez ohi da izaten. Halere, inork ezingo die ukatu The Wet Bandekoei meritua, nahiz eta Adi Holdenekoak eta, batez ere, Norman taldearen saio basatia lehia gogorra izan.

Adi Holdenekoak hasi ziren ikusle urduri eta animatuak aztoratu guran. Aurretik erakutsi ziguten intentsitatearekin jolastuz eta Alex abeslariaren pasio eta indarraz beteranotasunak guztia irents dezakeela. Etorri ere, ikusleak berriz ezustekoan harrapatzeko asmoarekin etorri ziren. Ñabarduretan aberatsagoa izan zen egubakoitzekoa, baina agian ez zuen izan lehenengo saioak izandako distira edo xarma. Saioa, halere, ona izan zen.

Gaueko energia deskarga beraz egina zegoen eta The Wet Bandekoek bestelako moduak behar izan zituzten gauaren jabe egiteko. Esan liteke etxean jokatu zutela mutrikuarrek, Elgetara lagun autobuskada go zuten-eta. Animuak ondo berotuta, hazten eta mamitzen joan ziren eta zerua ukitu zuten bukaera aldera. Borobila eta aurrekoan baino askoz ere sinesgarriagoa izan zen The Wet Banden kontzertua. Bikain jardun zuten eta aurkako iritzidunak, aitzakia gutxirekin utzi zituzten.

Azkenik Norman eta hain erakargarria den haien eromena. Abesti berriekin arriskatu zuen laukoteak. Aurrekoan leherketa hutsa izan zen haiena eta egubakoitzean gauza berriak probatzeko ausardia izan zuten. Apustua da, zalantza barik eta emaitzak ez zuen aurrekoan moduko batasunik. Hala ere, ezin zaie ukatu saria berdin-berdin joan zitekeela Eibarrera eta pena da esku hutsik bueltatu behar izatea baina

SARIAK

**> LEHIAKETAKO TALDE ONENA**
THE WET BAND.
Epaimahaia: "Zuzeneko oso osatua dute, musikari oso onak dira eta nabarmentzekoa da koroak eta melodiak sartzeko duten gaitasuna; emaitza borobila da. Ziurtasunez ikusi ditugu".

**> DEBAGOIENEKO TALDE ONENA**
ADI HOLDEN.
Epaimahia: "Arriskatzen duen taldea da, zuzenean guztia ematen saiatzen dena eta zoramen puntua ere hartzen duena. Egiten dutena bizi dutela igartzen da".

**> IKUSLEEN TALDEA**
THE WET BAND.



## ADI HOLDEN | Bergara

**Adituak esana** > Inaxio Esnaola
“Gaurkoa akaso ez da euren onena izan. Hala ere, kontzertuan eta baita ere euren proposamena ez daude batere gaizki. Talde heldua ematen du, belaunaldiak nahasten dituztela dirudi eta nabari zaie musika estiloak nahastea gustuko dutela. Talde “berezia” moduan nabarmenduko nuke baina, akaso, ez dute jakin abesti osoak egiten, nahiz eta kontzertua bizi duten eta ondo aritu diren”.

**Ikusleek esana** > Irati Olaeta
“Taldeak oso ondo jo du eta euren estilo horretan ondo mugitzen dakitela ikusi da. Ikuskizuna ere ona izan da eta kont-

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
“Aurreko saioaren ezberdina da eta ez zeukaten zertan, ze hura bikaina izan zen. Hala ere, eskertzekoa da asmoa. Kolore eta intentsitate aldetik osoagoa izan da, baina agian lehertzea falta izan zaie. Aipatzekoa ere musikarekiko daukaten jarrera”.

**Taldekideek esana**
“Finala beti da berezia, eta nahi eta ez, beti dago presio hori. Gaurko gure asmoa zarata izan da, kontzertu nahastua izan zedila; jendea aztoratzea gura genuen. Guk dagoeneko saria badaukagu eta da finalera heldutako Debagoieneko taldea izatea. Hala eta guztiz ere, dena



## THE WET BAND | Mutriku

**Adituak esana** > Inaxio Esnaola
“Taldeak oso ondo prestatu duela asko nabaritu da. Oso estereotipatua izan daiteke taldea; askok hala jo dezakete baina guztiaren gainetik abeslariak sekulako ahotsa dauka eta, batez ere koroak, oso onak dira. Talde hau Alemanian ikusiko banu sekula ere ez nuke pentsatuko Mutrikukoak direnik. Kalitate handiko taldea iruditu zait eta gaueko taldea ere”.

**Ikusleek esana** > Irati Olaeta
“Talde hau oso ona da ze behar den guztia dauka: musikari onak, ahots ezin hobea eta abesti onak. Ondo bete dute agertokia eta oso gustura egon naiz

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
“Distiratsuen eurek egon dira eta gaurko saio apartekoak baliteke balantza euren alde jarri izana. Oso talde erakargarria da eta etorkizuna gura izanez gero badaukate. Borobila izan zen egubakoitzekoa eta bertsioa egin zutenean gailurra jo zuten”.

**Taldekideek esana**
“Gaurkoan aurrekoan baino gusturago egon gara. Ez da ohikoena, baina lehengoan baino lasaiago egon gara. Lasai hasi eta poliki-poliki erritmoa hartzeko kontzertua planteatu dugu eta horrela joan da. Danbakako taldeen maila handia eta konpetentzia ikusita, pozik gau-



## NORMAN | Eibar-Ondarru

**Adituak esana** > Inaxio Esnaola
“Talde berezia baita ere. Laurek gogotsu jardun dute, musika beraren baitan. Punk rocka, hard rocka, denetarik nahastu dute. Zuzenerako oso talde polita da eta saio ona egin dute. Instrumentu guztiek bat egin dutelako izan da hain ona eta baita ere abeslari bitxi eta jatorrarengatik. Musikalki lineala izan daitekeen arren, abesti osoak dauzkate.”

**Ikusleek esana** > Irati Olaeta
“Sekulakoak zuzenean. Abeslariak guztia betetzen du eta taldea berekin batera doa. Oso-oso onak. Arriskua hartzen dute musikan eta erritmo biziari saio osoan eutsi diote. Oso maila altua”.

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
“Badute xarma berezia eta egubakoitzean ere ez zuten galdu. Talde trinkoa da, ondo jotzen dute, ikuskizuna ere eman eta batez ere, eurena den izaera daukate. Abesti berriekin arriskatu zuten eta agian hor nabaritu zen aldea. Halere, bikainak dira, saririk ez dute behar, erakusteko”.

**Taldekideek esana**
“Gaurkoan dena eman dugu, oso gustura geratu gara. Agian aurrekoan hobeto ibili ginen, baina ondo. Abesti berriekin etorri gara gaurkoan eta horregatik ezberdina izan da. Aurreko astean gainera grabatzen ibili ginen eta finalera

TALDE GONBIDATUA



## PETTI & BANDA ELEKTRIKOA | Bera (Nafarroa)

**Emanaldiaren kronika**
Ikusle, musikari eta jarraitzaileen urduritasunak baretzeko lan zaila izan zuen Pettik. Horretarako banda osoa ekarri eta elektrizitatearen indar guztiak saio indartsu eta mamitsua egin zuen Berako kantariak.

Pablo Cabezak berak GoiTBko elkarrizketan aurkeztu moduan, talde irabazlea, “benetan Petti eta haren taldea da”. Eta arrazoirik ez zuen falta izan musika adituak, luxuzko gorputz elektrikoa izan zuten-eta kantariaren abesti barnekoek. Txantxak alde batera utzita, esan gabe doa Pettiren ahots sakona nahikoa dela Espaloi osoa bete eta txunditzeko, baina taldea ere ez zaio oso atzean geratzen. Gitarran lagun Joseba Irazoki izan zuen eta baxu eta baterian David Gonzalez eta Igor Telletxea.

Kantautore planta behin ere ez zuen galdu Pettik, haren istoriek berdin jarraitzen dute ilun eta biziak izaten, baina bandak lehiaketa ixteko beharrezko indarra eman zien kantuei. Betiko Egun bat gehio edo Etxeko Uzta diskoko perlak elektrizitatea izan zuten. Inork kantautorea aulki gainean eta akustikoarekin espero bazuen, horrelakorik ez zuen aurkitu. Saio laburra, baina sakonera handikoa izan zen, blues eta folk ukitu berezi hori ahaztu barik, kutsu bereziarekin beti. Eta guztiaren gainetik Petti-

## Publikoaren Saria

Honako hau da soilik kontzertuetan zehar jasotako botuekin egindako sailkapena:

| | |
|---|---|
| 1 | **THE WET BAND** MUTRIKU Botoen **%11,66** |
| 2 | **NORMAN** EIBAR-MUTRIKU Botoen **%11,37** |
| 3 | **BITTER HONEY** ARRASATE Botoen **%8,91** |
| 4 | **TURBOSHIT** BERGARA Botoen **%8,54** |
| 5 | **FOXXY BOXXY** ARRASATE Botoen **%5,87** |
| 6 | **THE 5 TWISTERS** ARRASATE Botoen **%5,72** |
| 7 | **LOS VIERNES AL RON** ANTZUOLA Botoen **%4,85** |
| 8 | **IGOR SAN JUAN** ARETXABALETA Botoen **%4,63** |
| 9 | **SCAM** ARETXABALETA Botoen **%4,05** |
| 10 | **MERY MAY** ARRASATE Botoen **%3,91** |
| 11 | **TUESDAY EVENINGS** DURANGO Botoen **%3,76** |
| 12 | **ADI HOLDEN** BERGARA Botoen **%3,48** |
| 13 | **DAMUDOT** MALLABIA Botoen **%3,17** |
| 14 | **BRANKAN** BERRIZ-MARKINA Botoen **%3,17** |
| 15 | **THE MOTHER FUCKERSXSS** ARRASATE Botoen **%2,75** |
| 16 | **REVELPHONE** SORALUZE Botoen **%2,75** |
| 17 | **BARUA BANDA** ESKORIATZA Botoen **%2,39** |
| 18 | **LORDWITCH** BERGARA Botoen **%2,24** |
| 19 | **NI NEU** EIBAR Botoen **%2,03** |
| 20 | **FLIPIN FOLK** ERMUA-EIBAR Botoen **%1,45** |
| 21 | **ARMY-ARMA** ZORNOTZA Botoen **%1,01** |
| 22 | **HILBETE** DURANGO Botoen **%0,94** |
| 23 | **YMOTEK** ABADIÑO Botoen **%0,65** |
| 24 | **ROCK PRIVADO** OÑATI Botoen **%0,65** |


Normanekoek, huts egin barik, guztia eman zuen, indarrez eta basatiki.


The Wet Bandeko Endika, kontzertua bizitzen.


Pablo Cabeza kazetaria.


Adi Holdeneko Alex Muela.


Igarri izan zen finala zela: giroa pil pilean zegoen.


Endika eta lagunak ospatzen.


Normaneko Beñat.


Goitb-ko Maider Arregi Juan Sangre elkarrizketatzen.


Joseba Irazoki.


Usoa Agirre / Maider Arregi

# Danbakako finala = musika gala

Danbakako finala ez zen hiru musika talderen arteko finala bakarrik izan, musikaren gala ere izan zen. Hemen izan baitziren musika munduko izen handi asko eta beste ezagun asko: Ines Gose, Xabi Solano, SAko Jimmy, Nerea Alias, Juan Sangre, Haritz Lete, Inaxio Esnaola, Josu Zabala, Show Businessekoak, Belcebluesekoak, Bitter Honeykoak... Hainbeste ezagun batera aspaldian ikusi barik geunden!

Pablo Cabeza kazetaria ere hemen izan zen, profesional on moduan gure Josetxori konpetentzia egiten, argazkiak atera eta atera. Ea Danbakaren gainean kronika eder bat egiten duen!

Eta finaleko taldeak? Guztiak oso urduri, flan baten antzera. Adi Holdeneko abeslari Alex Muelak, adibidez, adrenalina igotzeko asmoz kafe hutsa tragoan edan zuen kontzertua hasi baino minutu bat lehenago.

Nola geratu komentatu gabe Mutrikuko ikusleak? The Wet Bandekoek finalaren propaganda ederra egin dute eta esan daiteke ia Mutriku erdi Espaloian egon zela. Gainera, okasiorako kamisetak ere egin zituzten, taldea ezin hobeto animatzeko.

Danbakak mugak zabaldu ditu eta horrek aurreko edizioetan egon ez zen jende asko erakarri du. Ea hurren-

FINALEAN IZANDAKO GONBIDATU BEREZIAK

### Xabier Solano
Esne Beltza

"Taldeek ezagutzera emateko aukera ona daukate hemen. Gaur egun nabari da kontzertu gutxiago daudela eta jendea ere ez da hainbeste mugitzen. Badirudi euskal musikan ere interesa jaitsi egin dela baina Danbakan talde berri onak daude".

### Juan Sangre
Governors eta Ekon

"Ekonekin itzultzen gara orain. Gogoz geunden eta momentua orain zela iruditu zaigu. Guk ikuskizuna eskainiko dugu, Ekon ezagutzen dutenek ondo dakiten moduan. Bilbon eta Hatortxu Rocken izango dira lehen emanaldiak eta gero Euskal Herri osotik".

### Inaxio Esnaola
Kazetaria

"Etorkizun handiko taldeak ikusi dira aurten; The Wet Band eta Norman nabarmenduz. Aurten gustatuko litzaidake hiru talde finalistek izatea diskoa grabatzeko aukera. Finala oso ona izan da, hirurek merezi zuten. Lehiaketa maila altukoa da dagoeneko".

### Josu Zabala
Hertzainak

"Ez ditut gustukoegi lehiaketak, musika eta konpetentzia ez doaz bat. Talde eta musikari hasiberriei esango niekena da egin dezatela gura dutena. Horrez gain, Danbaka musika lehiaketa taldea ezagutzera emateko bidea da eta horrek ere laguntzen du".

### Pablo Cabeza
Kazetaria

"Villa de Bilbaoren ostean gehien gustatzen zaidan lehiaketa da Danbaka. Maila handia da eta oso ondo dago antolatuta. Finala oso lehiatua iruditu zait. Niri, Norman gustatu zait gehien, bikaina iruditu zait nahasketa eta euren ekarpena".

Eskuak ondo beteta, sari bikoitzarekin eta garaipena ezin sinistuta itzuli dira Mutrikura The Wet Bandekoak. Urte bi ere ez darama taldeak jotzen eta dagoeneko piztu dute zeresana. Kontzertu borobila egin eta txapeldun atera. Gau gogoangarria izan zen egubakoitzekoa laukotearentzat. Diskoa grabatzea izango dute orain erronka. Eta abestiak

**The Wet Band** > Sari nagusia eta ikusleen saria

# "Abestiak berriak idatzi eta diskoa aterata, dena emateko prest gaude"

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

**Ospatzeko denbora justua izan zuten egubakoitzean lehiaketako irabazleek. Afari batekin ospatuko dute garaipena, baina lehenik azterketa eta konpromisoekin bukatuta. Sinestea kostatu baina zapatuan dagoeneko oinak lurrean harrapatu genituen Endika gitarra jotzailea eta Iñigo baxu jotzailea.**



The Wet Band taldeko Endika, Aitzol, Ainara eta Iñigo sariak jasotzerako unean. JOSETXO ARANTZABAL

Gau handiaren ostean, zelakoak izan dira lehen orduak?

Endika: Digeritzen gabiltza oraindik... oinak lurrean jartzeko denbora besterik ez dugu izan.

Ez bat, azkenean bi sari eskuratu zenituzten atzo. Horrelakorik espero zenuten?

E.: Gu irabaztera irten ginen eta kontzertuarekin oso gustura geratu ginen. Baina Normanen kontzertua ikusi eta gero imajinatu ere ez genuen egiten irabaztea. Normanekoen hasiera eta lehenengo bi abestiak ikusita pentsatu genuen Normanek eroango zuela guztia. Uste genuen Normanek irabaziko zuela eta ezustekoa izan zen. Ikuslearen sarian hamaikagarren-edo gindoazen eta ez genuen espero. Lehenengo gainera ikusleena esan zuten eta guri emanda, ondorioztatu genuen Normanek irabazi zuela. Sari nagusia ere guretzat zela entzutean oso sentsazio arraroa izan zen. Normanek ezer ez eramatea baina, gazigozoa izan da guretzat, ze merezi zuten zalantza barik.

Espaloia kafe antzokira joandako lagun koadrila handiak lagunduko zuen, edo?

E.: Duda gabe, asko lagundu zuen. Lehen kontzerturako ere antolatu genituen autobusak. Guk buruan ez geneukan jendea eramatea ikuslearen saria irabazteko. Beti egoten garen tabernan ipini genuen kartela. Taldeak erdia pagatu eta jendea autoa hartu barik eta ondo pasatzera etortzeko antolatu genuen autobusa. Gu betiko tabernan moduan sentitu gara kontzertuetan, etxean bezala.

Oso kontzertu borobila izan zen egubakoitzekoa. Zuek ere horrela ikusi duzue?

E.: Saiatu ginen prestatzen bloke bakarra izango balitz bezala. Hitz gutxirekin, geratu gabe jo eta sendoa izan zedila nahi genuen. Gainera aurreko kontzertuan polemika txikitxoa egon zen, batzuk diotelako zehaztutakoa baino gehiago jo genuela eta oraingoan guztia ahalik eta denbora gutxienean ematea nahi genuen. Hala ere, taldekide batzuk azterketatan eta dabiltza eta ez dugu izan nahi adinako denbora guztia.

Talde oso gaztea zarete, ezta?

Iñigo: Urte pare bat edo daramagu jotzen. Ainara, abeslaria, geroago gehitu zitzaigun eta taldea hala osatuta urtebete ere ez daramagu.

Orain diskoa grabatzea izango da hurrengo erronka?

Iñigo: Momentuz sei-zazpi kantu dauzkagu eta hamaika bat abestiko diskorako falta zaigu oraindik. Lasai ibiliko gara abesti horiek egin arte eta horren ostean sartuko gara estudioan. Ondo prestatzeko beharrezkoa den denbora guztia hartuko dugu. Orain geldialditxoa datorkigu, azterketak amaitu arte, eta ostean ekingo diogu jo eta su abestiak konposatzeari. Norberak haren ideia ekar dezake etxetik eta konpartituz sortu egiten dugu. Abesti batek soul, beste batek funky eta hirugarrenak har-rock ukitua badauka, ba aurrera.

> POZA
>
> **"Digeritzen gabiltza oraindik... oinak lurrean jartzeko denbora besterik ez dugu izan"**
>
> BI SARI
>
> **"Irabaztera atera ginen eta guztia emateko prest. Hala ere, ezustean harrapatu gintuen sari bikoitzak"**
>
> LEHIAKETA
>
> **"Taldea ezagutzera eman eta zabaltzea nahi genuen eta Danbakak erraztu egin digu hori"**

Danbaka aurretik taldearekin zeneuzkaten asmo edo planak aldatu ditu saria irabazteak?

I.: Taldea ezagutzera eman da behintzat. Orain arte Mutriku inguru honetan ibili izan gara eta Danbakarekin zabaldu egin gara orain apur bat. Hala ere, gure asmoen barruan zegoen kontzertuekin mugitzen hastea; Danbakak erraztu egin duena. Inguruko jendearengana heltzen da Danbaka eta internet eta aldizkarien bidez zabalkundea ere handia da. Igarri duguna izan da Myspace-n. Danbakako lehen aukeraketa pasa eta gero, asko igo zien bisitak egunetik egunera.

Zuretzat ere ezustekoa izan zen atzokoa?

I.: Azaldu moduan, gu irabaztera joan ginen. Gainera entseatzeko larri ibili gara oraingoan konpromisoengatik, eta guztia eman gura izan dugu. Hori bai, suertatzea ikusleen saria eta sari nagusia guretzat izatea ezusteko bikoitza eta potoloa izan zen.

Gainera giro ezin hobean jaso zenuten saria.

I.: Bai baina lagunak bakarrik ez, gainontzeko ikusleak ere oso bero zeuden. Hala iruditu zitzaigun guri behintzat. Gainera Espaloiko agertokia oso baxua da eta ikusleak aurrez aurre dauzkazu. Horrek berotasun handia ematen du.

Aurrera begira jarri zarete, diskoa atera osteko planak egiten?

I.: Zehazki diskoa atera eta gero nola banatuko den ez

**Adi Holden** > Debagoieneko talderik onena

# "Zuzenean energia eta estudioan magia dago"




Adi Holdeneko laurak: Txarli. Alex, Ruben eta Arturo. JOSETXO ARANTZABAL

JON BEREZIBAR > BERGARA

**Diskoa grabatuko dute Debagoieneko talderik onenaren saria jaso dutelako. Zuzenean energia berezia duen taldea da Adi Holden eta, orain, hori diskora eramatea dute erronka bergarарrek.**

Atzoko saioa aurrekotik ezberdina izan zen. Nola bizi izan zenuten zuek?

Guk musika zabal ulertzen dugu, gure kaosetik lasaitasunera. Egubakoitzekoan saiatu ginen intentsitateari eusten eta hobeto jo eta abestuz. Taldea garatu egin da, gainera, aurreko saiotik finalera.

Asko eragiten du final bat izateak saioan?

Zuzenekoak energia kontua ere badira eta eragin handia izan zuen finala izateak. Guk lagun gutxi dauzkagu eta nabari egin zen hori. Finala zela-eta oso bero zegoen kontua. Guri gustatzen zaiguna da ikuslearekin harreman hori sortzea, nahiz eta lau katu egon. Egubakoitzekoan ezinezkoa izan zen, jendea sari bat irabaztera joan zelako. Zuzeneko energia horrek eragiten digu eta set-a moldatu egiten du horrek, kaosetik lasaitasunera doan tarte guztian mugitzea gustatzen zaigu

Diskoa tokatzen zaizue orain. Nola eramango duzue energia hori grabaketara?

Estudioaren magia aprobetxatzea izango da. Zuzenekoa gauza bat da eta oso bestelakoa estudioan egiten dena. Badihardugu material berria lantzen, baina aurrez esatea zaila izango da, gure soinua jasotzea gaitza da. Izan daiteke oso popa, rock klasikoarekin eta zuzenekoetan zeharo desberdina izatea, ala baliteke izatea guztiz kontrakoa. Ez gara ixten eta ez zaigu ixtea gustatzen inondik inora. Hamabi bat abesti jorratu eta hamar batekin geratuko gara diskorako. Gainera, estudioan geratuko dena ez dakizu, ze lokalean asko presta zenezake eta estudioan guztiz aldatu. Baliabide teknikoei ahalik eta etekin gehien atera gura diegu.

Beraz, diskoan edozer espero genezake?

Otu dakiguke sampler bat sartzea eta egin edo sitar batekin probatu. Estudioan nor

**"Guk musika zabal ulertzen dugu, gure kaosetik lasaitasunera, intentsitateari eutsiz"**

**"Zuzenekoan sortzen den energia baliatzen dugu. Ikusleekin harremana da gustuko duguna"**

**Norman** > Danbaka lehiaketako finalista

# "Disko fresko eta zuzena egiteko lanean gabiltza"




Argazkian Norman taldeko Kepa, Kobi, Alex eta Beñat finala bukatu ostean. JOSETXO ARANTZABAL

IKER BARANDIARAN > BERGARA

**Norman taldekoak ez dira erraz kikiltzekoak, eta saririk eskuratu ez duten arren, dagoeneko lehenengo diskoa izango dena prestatzen dabiltza. Talde berritzailea da oso. Alex Ariznabarreta baxu jotzaileak erantzun ditu galderak.**

Zer moduzko gorputzaldia daukazue azkenean saririk eskuratu barik? Bestalde, gustura gelditu zineten egindako kontzertuarekin?

Gure asmoa zen kontzertu on bat egitea, eta lortu genuen. Egia esanda, aurrekoan gusturago gelditu ginen, baina ondo irten zitzaigula uste dut, nahiz eta gorabehera txiki batzuk izan. Saririk ez eskuratzeak pena apur bat eman zigun, baina bestela ere pozik gaude heldu garen lekura heldu izanagatik.

Dena dela, jende askok goraipatu zaituzte. Igarri duzue berotasun hori, ezta?

Bai. Norman oso talde gaztea da eta oraindik forma hartzen dabil, baina Danbakaz geroztik jende askok esan digu gustuko duela, eta horrek asko pozten gaitu, ikaragarri. Are gehiago, Danbakara kantuak proba egitearren bidali genituen, baina orduz geroztik jende askoz gehiagok ezagutzen gaitu.

Dagoeneko kantuak grabatzen zabiltzatela jakin dugu...

Bai. Gure lagun Ander Barriusorekin Eibarko entsegu lokaletan, Legarren, sei kantu grabatu genituen ekainean. Eta, orain, beste bost grabatzen gabiltza: instrumentu guztiak zuzenean, denok batera, eta gero ahotsak sartuko ditugu. Egin gura dugun diskoa freskoa eta zuzena izango da, Norman zelakoa den erakutsiko duena.

Zuen estilo eta erritmo koktelerak jende asko harritu du...

Bai, baliteke. Ez gara soinu eta musika zehatz baten bila joan, baina taldekide bakoitzak gustu oso pertsonalak ditu, eta guztion nahasketak hori ematen du. Etiketekin gu izendatzea zaila da.
Ez da ohikoa talde bortitzek Itoiz bersionatzea...

Egia da, baina laurok oso gustuko daukagu Itoiz eta batez ere talde horrek daukan alderdi ez hain komertziala.

Oso argi daukazue euskaraz abestu behar duzuela?

Bai. Beñat abeslariaren erabakia izan zen, baina gaur egun

**"Saririk ez hartzeak pena apur bat eman digu, baina pozik gaude hona heltzeagatik"**

**"Ez gara soinu eta musika zehatz baten bila joan, lau taldekideen batuketak eman du hori"**

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

Antzuola. 90 metro koadro. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. Jantzita. 2006koa. 270.000, negoziagarriak. 690 73 64 16

Aramaio. Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Ibargoian. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 620-59 86 55.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

Beasain. 55 m²ko etxebizitza guztiz eraberritua. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Eguzkitsua, bi balkoirekin. Trastelekua. 615 73 59 18.

Bilbo. Alde Zaharreko metrotik 7 minutura, ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trastelekua eta garaje plaza 1 (alokairuan). 94 415 67 49.

Bilbo. Bilbo. Salgai, Santutxun, Basarrateko metro alboan 3 logelako etxebizitza igogailuarekin. Egongela, komuna, sukaldea jantzita, berogailuak gas naturalarekin eta despentsa. 37 milioi, 222.375 euro. 688 63 36 21.

Intza. Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerakoa. Deitu 628 03 07 27, 646 11 14 85 eta 609 21 83 41 telefono zenbakietara. estanga@wanadoo.es

Irura. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berogailua eta armairu enpotratuak ditu. 695 78 51 53.

Ispaster. Ispaster. Baserria salgai 15 hektareatako lursailarekin. Bi etxebizitza egiteko aukera. 80 milioi, 480.810 euro. Tel. 688 63 36 21.

Lakuntza. Lakuntzan 36 metro karratuko lokal komertziala salgai. Bizitza bihurtzeko aukera. Ermiñeta kalean. Interesatuek hots egin 689 23 27 08 telefonora.

Lekeitio. Pisua. Bi logela, ezkaratza, egongela, komuna eta sarreraduna. Berriztatuta eta jantzita. 688 69 63 36.

Lekeitio. Aukera paregabea. Txaleta. Leku eder eta lasaian, lur eremua fruitondoekin, prezio interesgarria. 120 milioi. 721.215 euro. 688 63 36 21.

Lekeitio. Aukera ezin hobea. Lehen solairua, eguzkitsua! 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi eta ganbararekin. 30 milioi, 180.304 euro. Deitu 688 63 36 21 telefonora.

Lezo. Pisua duela 4 urte guztiz berritua, bizitzeko prest legoke. Bi logela, hirugarren bat egin daiteke. Garaje itxia erosteko aukera, 23 m², 20.600 €.

Mutriku. Mutriku. Salgai Erdiko Kalean, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 140.000 euro. Deitu 680537289 zenbakira.

Mutriku. Etxebizitza salgai Mutrikun, Erdi Kaleko eraikin berrian. 50 m2. Estreinatzeko. Jantzitako sukaldearekin. 200.000 euro.615 74 54 59.

Mutriku. Salgai duplexa Erdiko Kalean, 5 gela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. 210.000 euro. 680 53 72 98.

Oñati. Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Eraikin berria. 80 metro koadro eta 17 metro koadroko garaje itxiarekin. Prezio interesgarria. 210.350 euro guztira. 943 78 07 15.

Trukea. Kale-kalean estreinatzeko dagoen garajedun apartamentua etxe handiago batengatik trukatuko nuke. Diferentzia adosteko. 665 71 42 69.

### 103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta egongela. Berogailua. Bikote edo ikasleentzat. 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Loramendi 6an. Unibertsitatetik gertu. Hiru logela, lau ohe. 685 75 05 87 edo 943 79 99 50.

Beasain. Etxebizitza alokatzen da. Foru kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoia. 685 78 45 52.

Jaca. 3 logelako etxebizitza alokatzen dut. Asteka edo hilabeteka. 635 75 02 93

Lasarte-Oria. Lasarte-Oriako zentroan. Harremanetarako zenbakia, 686 67 45 53.

Lezo. 60 m², logela bat du eta beste gela bat irekia, egongela, bainu bat eta sulkaldea; etxebizitza guztiz berritua dago. 730 euro. Abala beharrezkoa da.

Oñati . 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Santa Marina plaza ondoan. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta trastelekua. 652 71 74 33.

Oñati. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49 .

Oñati. Etxebizitza ematen dut errentan martxo edo apiriletik aurrera erdigunean. Hiru logela ditu. Jantzita eta oso egoera onean. Deitu 670 30 60 98 telefonora.

Zaragoza. Unibertsitatetik gertu. Lau logela, egongela, bi komun, garajea eta aire egokitua daukan etxebizitza alokatzen dut. Deitu 659 58 56 83 telefono zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

Andoain. Bikote arduratsuak pisua alokatuko luke Andoain edo inguruetan. 686 06 72 94 (Maite).

Aretxabaleta. Etxebizitza txiki bat edo apartamentu bat errentan hartuko nuke. 619 46 43 66.

Arrasate. Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. 636 25 56 68.

Arrasate. Kooperatibetan lanean dabilen mutil bat beste langile baten bila dago etxea konpartitzeko. 628 08 75 89.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 618 14 71 34.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. 636 25 56 68.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 658 28 90 86.

Idiazabal. Bikote gazte batek Idiazabalen pisua alokairuan hartuko luke. 615 75 34 11.

Lakuntza. Lakuntza inguruan pisu bat alokatu nahi nuke. 669 56 36 21.

### 105. ETXEAK OSATU

Altsasu. Interesatuak 608 579770 telefonora deitu.

Altsasu. Logela alokatu edo pisua konpartitzeko prest nago Altsasun. 690 70 61 72.

Aretxabaleta. Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. 639 28 53 50

Arrasate. Pertsona bat behar dugu Arrasateerdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Etxe handia, wi fiarekin. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22

Bergara. Bolu auzoan pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 670 85 86 68 telefono zenbakira deitu.

Donostia. Oso egoera onean, erabat hornitua (internet ere badu) eta ondo kokatua. Etxean bakarrik pertsona batekin bizitzeko. Ohe handia, armarioa eta ikasteko mahaia. Ekainera arte.

Eskoriatza. Pertsona bat behar da etxe bat osatzeko. Deitu 690 15 95 06 telefono zenbakira

Getaria. Herri erdian erosotasun guztiekin eta bi neska euskaldunekin etxea konpartitzeko aukera. Gastuak aparte. Interesatuak aupairu@hotmail.com helbidera idatzi beraien burua aurkeztuz.

Oñati. Neska langile batek pertsona bat behar du pisua osatzeko. 2 logela ditu etxeak, herri erdian dago eta interesatua langilea izan dadila nahiago dut. Otsaila-martxoa 2009tik aurrera sartzeko aukera. 655 71 33 66.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

Errenteria-Orereta. Garaje itxia salgai Errenteria-Oreretako Tulle kalean. 615 72 66 00.

### 203. ERRENTAN EMAN

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

BERGARA
Pizzeria errentan eman edo eskualdatzen da.
635 71 52 25

Bergara. Garajea ematen da errentan San Lorentzon. 943 76 18 01.

Lasarte-Oria. Tamaina handikoa, auto familiarra edo furgonetarako aproposa. Harremanetarako zenbakia, 943 37 61 15.

Ormaiztegi. Auto batentzako garajea alokatzen da Ormaiztegin. Deitu: 609 41 18 11

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 4/ LANA

### 401. ESKAERAK

Altsasu. 18 urteko Altsasuko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Autoarekin. Deitu 646 55 32 66 telefono zenbakira (Arantxa).

Arrasate. Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Tituludun ile apaintzailea gertu etxean bertan orrazteko. 650 59 93 91.

Arrasate. Esperientzia handiko neska sukaldean lan egiteko gertu. Baita garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko ere. Nacira. 639 93 25 04

Arrasate. Metalurgia, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo edozein motatako lanak egingo nituzke. Jose Ingo. 639 93 25 04 edo 659 32 69 92

Arrasate. Etxeko lanak egin edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Paperak ditut. 686 52 15 98

Arrasate. Neska batek arratsaldetan lan egingo luke. Garbiketa lanak egiten edo pertsona nagusiak zaintzen. 649 62 88 22.

Arrasate. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Legezko paperak eta erreferentziak ditut. 618 14 71 34

Arrasate - Bergara. Etxeko lanak egiten lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 620 54 60 59

Azpeitia. Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest. Informazio gehiago: 637 11 39 09

Begara. Emakume arduratsua garbiketa lanak egin eta haur edo nagusiak zaintzeko gertu. 699 63 12 02

Bergara. Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. 686 99 59 41.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zaintzeko. Orduka. 680 87 38 66

Debagoiena. Mutila gertu tabernari edo bestelako lanetan aritzeko: garbiketan, baserrian... 634 84 11 72.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 628 93 79 39.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Gauez edo goizetan orduka. 697 93 73 32.

Debagoiena. Emakumea gertu haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 627 18 34 79.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. 686 45 72 56.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu 615 72 15 17 zenbakira.

Debagoiena. Neska espainiarra gertu garbiketa lanak egiteko edo ume zein nagusiak zaintzeko. Segituan hasteko prest. 667 28 83 21.

Debagoiena. Arropa konponketak egiten ditut: barrenak, kremailerak... 699 34 86 88.

Debagoiena. Edozein lan mota egiteko gertu nago, goizez zein arratsaldez. Margarita. Deitu 688 68 13 63 zenbakira.

Debagoiena. Mutila gertu igeltsero lanak egiteko. 667 28 83 21.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. Deitu 680 67 69 88 telefono zenbakira

Debagoiena. Debagoiena edo Debabarrena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten, astelehenetik ostiralera. 628 40 58 27.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke gauetan. Esperientzia eta Geriatria ikastaroa dauzkat. Erreferentziekin. Deitu 618 93 59 29 telefonora.

Debagoiena. Gizonezkoa lanerako gertu. 663 51 44 94.

Debagoiena. Esperientziadun emakumeak umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. 680 30 24 64.

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu garbiketa, sukalde laguntzaile edo bestelako lanetarako. 638 61 85 10.

Debagoiena. Basogintza lanak egingo nituzke: inausketa, garbiketa eta abar. 659 05 97 21.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. 686 45 72 56.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. 628 40 58 27.

Debagoiena. Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izanda 659 57 93 89.

Debagoiena. Emakume gaztea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo eginda edo ez. 659 57 93 89

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz eta etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 688 68 13 63

Debagoiena. Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 14:00etatik aurrera. 618 12 07 44

Debagoiena. Gidabaimena duen mutila lanerako gertu: banaketak, garbiketa edo tabernetan. 697 66 79 37

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat etxeko lanetan. 686 52 15 98.

Debagoiena. Ordenagailu eta periferikoak etxean konpontzeko prest. Telefonoz laguntza emateko eta urrutiko kontrola hartzeko prest. Edozein dendatan baino merkeago. Tratu pertsonala. 693 34 58 69.

Debagoiena. Paperak dituen mutil gaztea peoi moduan lan egiteko gertu. 626 17 60 57.

Debagoiena. Neska arduratsua, legezko paperak dituena, lanerako gertu. Etxean bertan bizi izateko gertu ere bai. 943 08 15 39 edo 699 34 86 88.

Debagoiena. Neska euskalduna prest edozein lan egiteko. 647 87 28 31.

Debagoiena. Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egin edota nagusiak zaintzeko. 679 13 74 19.

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, ahal bada orduka lan eginez. Consuelo. 649 70 51 74.

Debagoiena. Pertsona nagusien eta haurren zaintzarako gertu egongo nintzateke, ahal bada orduka lan eginez. Maria. 667 20 56 29.

Debagoiena. 39 urteko gizonezkoa egun erdiko lan baten bila dabil, taberna batean edo bestelako lan batean. Iñaki.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Aranerreka, 95 m², oso ondo.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- San Lorentzon etxe berriak

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 150. 253 €.

Elgeta:
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 m² + 42 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan eta Zubietan.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
- San Roke, 75 m², ia berria.

inmobiliaria Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

ALOKAIRUAN
**PASAI DONIBANE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Kaira begira. 680 €.
**PASAI SAN PEDRO.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kaira begira. 750 €.
**MARTUTENE.** 2 edo 3 logela. 2 bainugela. Igogailua. 650 € eta 790 €.

SALMENTAN
**ANTIGUA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 46.950.000.
**HIRIGUNEA.** Autonomia kalea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. Igogailua. 49.000.000.
**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Eguzkitsua. 36.200.000.
**AMARA.** 70m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 53.990.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza (60m2). Berritua. 45.400.000.
**AMARA.** 70m2. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 46.500.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Balkoia. Ordaintzeko erraztasunak. 56.800.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekua. 40.990.000.
**AMARA.** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 40.990.000.
**ALDE ZAHARRA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 45.990.000.
**GROS.** Sagües. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 41.500.000.
**GROS.** Txofre. Goi solairuko apartamentua. Balkoia. Trastelekua. 35.900.000.
**GROS.** Kolon pasealekua. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 35.000.000.
**BUENAVISTA.** 65m2. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Polita. 34.900.000.
**MARTUTENE.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000.
**MARTUTENE.** Salmentan edo alokairuan. 2 logela. Kanpora begira. 650 €. 31.400.000.
**LOIOLA.** Atikoa, terrazarekin. Eguzkitsua. Berritua. 28.500.000.
**ASTIGARRAGA.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Polita. 39.500.000.
**PASAI DONIBANE.** Itsasora begira. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. 44.950.000.
**LEZO.** Baserri etxea. 4 logela. Lursailak. Txokoa. 46.800.000.
**LASARTE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. Berritua. 35.500.000.

608 49 89 93.

Debagoiena. 23 urteko mutila astebukaeratan ostalaritza lanak egiteko gertu. 635 75 74 54

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 667 28 83 21.

Debagoiena. 23 urteko mutila gertu garbiketa, sukaldaritza edo bestelako lanetarako. Nahiago Arrasaten. 943 05 79 13.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. 697 93 73 32.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 667 28 83 21.

Debagoiena. Emakume boliviarra, legezko paperak dituena, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. 636 91 93 81.

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldean lagundu, garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzen lan egiteko. Ile apaintzaile laguntzaile ere bai. Legezko paperak ditut. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak zaintzeko eta zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. 661 06 07 23.

Eskoriatza. Emakume arduratsu eta euskalduna gertu umeak edo jende nagusia zaintzeko edota garbiketan lan egiteko. 600 61 56 70.

Gernika-Lumo. Geriatria laguntzailea, zaintze lanetan eskarmentu handikoa, lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa)

Goierri. Garbiketa orokorrerako neska eskaintzen da. Adinekoak zaintzen, peoi bezala, edo kualifikazioa eskatzen duten lanetan ere lan egiteko prest. Deitu: 680 21 14 13

Goierri. Lan bila nabilen neska araduratsua naiz. Garbitzen, umeak edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. 628 48 72 75.

Lasarte-Oria. Klase partikularrak ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia, 646 71 76 76.

Lasarte-Oria. Neska bat eskaintzen da haurrak, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako. Interna moduan edo orduka. Tel.: 620 03 68 88.

Lasarte-Oria. Neska arduratsua eta lanerako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel.: 690 30 46 83.

Lasarte-Oria. Alfonbrak, etxeak, bulegoak, eta abar garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 94 46 04 Irene edo 695 70 82 71 Itsaso .

Lasarte-Oria. Pertsona arduratsua eta klinika laguntzaile, geriatria eta psikologia esperientziadunak pertsona adinduak zainduko lituzke. 680 98 35 27. Karlos

Pasaia. Autonomoa eskaintzen da astean 2 edo3 egunetarako. Esperientzia handia lorazaintzan kamioi kartetarekin eta furgotarekin aukeran. lorazain@ozu.es edo 679 60 04 44.

Tolosa. Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04 edo 695 70 82 71.

Tolosaldea. Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Irene: 638 94 46 04. Itxaso: 695 70 82 71.

Tolosaldea. Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. 627 653433

Urola Kosta. Garbiketa lanak egiten dira. Alfonbrak, etxea, bulegoak... Garbitzeko prest. Deitu inolako konpromisorik gabe. Irene: 638 94 46 04 eta Itxaso: 695 70 82 71.

Zegama. Gauetan zainketak egiteko prest dagoen neska euskalduna. Esperientziaduna eta autoarekin. 646 62 16 77

Zestoa - Urola Kosta. Umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia. Baita garbiketa lanetan eta ileapaindegietan ere. Beste sektoreetan ere lana egiteko prest. Tfnoa: 664 47 05 69.

## 402. ESKAINTZAK

Aramaio. Pertsona arduratsu eta euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 73 58 55

Azpeitia. 3 urteko umea zaintzeko pertsona bat behar dut. Interesa duzuenok, deitu telefono honetara: 665 66 34 84.

Azpeitia. Umeak zaintzeko pertsona bat behar da Azpeitian. Telefonoa: 665 66 34 84

Azpeitia. Neska bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, goizez edo arratsaldez. Tel.: 687 41 59 43.

Lasarte-Oria. Herri aldizkari baterako kazetari bat behar da. Interesatuak bidali kurrikuluma edo deitu: txintxarri@txintxarri. info. 943 36 68 58.

